

hh
hik hasi

Oier Araolazari elkarrizketa
Euskarari eta babesari eusten
Ikaskuntza espazioak ikuspuntu kritikotik
diseinatzuz
Autobus baten garrantziaz
Zer da hizkuntza-ideologia?
Nahia Indurain Perez



ELKARLANA HERRIAN

GORPUTZ GUZTIAK DIRA EDERRAK

Zutaz hitz egiteko gida inklusiboa



TTARTTALO®
www.ttarttalo.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

ELKARLANERAKO KULTURA BERRIA

Erreterian (Gipuzkoa) hezkuntza komunitatea saretzeko prozesua jarri zuten abian duela bost urte eta urte hauetan elkarlanerako kultura berria sortzen joan dira. Ikastetxeko ikuspegia izatetik herriko ikuspuntua izatera pasa dira ikastetxeetako zuzendariak eta erantzunkidetasuna oinarri hartuta, herriak dituen erronkei erantzuten ari dira.

ELKARRIZKETA / 16

OIER ARAOLAZA

Historia eta tradizioa oinarri hartuta, euskal dantza euskaldunon gorputz hizkuntza dela aldarrikatzen du Oier Araolaza dantzari eta antropologoak, eta egun analfabeto hazten ari garela irizten dio. Argi dauka dantza hezkuntza sisteman txertatu behar dela, dituen onurengatik eta beste herrialde batzuetan egiten dutenaren bidetik.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2023-6-26).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiek.

5 EDITORIALA

Herri mailako elkarlana eta erantzunkidetasuna

10 GAI NAGUSIA

Elkarlanerako kultura berria

16 ELKARRIZKETA

OIER ARAOLAZA

“Euskal herritar guztiok izan behar dugu euskal dantzaren hizkuntza gure gorputzean”

22 ESPERIENTZIAK I

Euskarari eta babesari eusten

26 ESPERIENTZIAK II

Etxepare lizeokoek jaurtiko dute Nafarroa Oinez guneko suziria San Ferminetan

28 EKARPENAK I

Ikaskuntza espazioak ikuspuntu kritikotik diseinatz

32 EKARPENAK II

Euskarak eta kulturak Hezkuntza Legea zeharka dezaten eskatu dute kultur eragileek

34 AHALDUNTZE ESKOLA

Saguzarrek gu zaintzen gaituzte

36 GALDEIDAZU

Zer da hizkuntza-ideologia?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Klimb Zarautz

42 ATZEKO ATETIK

Nahia Indurain Perez

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Politika Sailak (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana euskaraz



Herri mailako elkarlana eta erantzunkidetasuna

editoriala

HERRI BATEKO IKASTETXEAK SARETZEAN, ELKARLANEAN HASTEAN, BIZIKIDETZA HOBETZEN DA. HERRIKO IKUSPEGIA EDUKITZEAK KOHESIONATU EGITEN DU. ERANTZUKIZUNEZ ARITZEAK KOMUNITATEA INDARTZEN DU.



Interesgarria da —eta komenigarria, zergatik ez— erantzunkidetasunean oinarritutako kultura berri bat garatzea hezkuntza arloan, eta pozgarria da Errenterian hala egiten ari direla ikustea. 2017-2018 ikasturtean abiatu zuten *Errenteriako hezkuntza komunitatea saretzen, erantzunkidetasunean sakontzen* prozesua. *Saretzea* eta *erantzunkidetasuna*, bi hitz potolo eta sendo, erronka anbiziotsuak, baina heldu zieten, eta sakontzen eta garatzen darraite.

Udalaren ekimenez sortutako prozesua da, Errenteriako udalak argi duelako herriko ikastetxe guztiek osatzen dutela hezkuntza komunitatea eta denen arteko elkarlana ezinbestekoa dela hezkuntza komunitateak bere lekua eta garrantzia izan dezan herrian.

Prozesuan zehar 3-16 urte bitarteko ikasleak dituzten herriko bederatzi ikastetxeetako zuzendarien taldea sortu zuten eta ibilbide emankorra egiten ari da. Zenbaki honetako erreportajeko testigantzak irakurri besterik ez dago: “Zuzendarion artean sare bat sortu da, elkarri laguntzen diogu, berdin da zein ikastetxetako izan. Hori lehen ez zegoen eta orain bai”; “orain, herrian gertatzen denaz ikuspegi

orokorragoa dut eta erlazionatzeko beste modu bat ere bai”; “niretzat beharra zen elkartzea eta herri mailako foro bat edukitzea oso egokia iruditzen zait”; “udalak herri moduan pentsatzen jarri gaitu; horrek ikastetxeko perspektibatik ateratzea eta herri mailako ikuspegia edukitzea, ezagutzea eta partekatzea ekarri dit”.

Denen artean herriak dituen hamar erronka zehaztu zituzten eta horiei erantzuteko ekin-tzak aurrera eramaten ari dira. Ez zailtasunik gabe, inork ez du esan horrelako prozesuak errazak direnik. *Gogorra, beldurra, krisia* eta *tentsioa* hitzak erabili dituzte egindako bilerak deskribatzeko, baina baita *konpromisoa, borondatea, sinesmena, ausardia* eta *adostasuna* ere. Aurrera egiteko gogoa handiagoa izan da, eta adostasunetara iristeko nahiari tinko eutsi diote.

Herri bereko ikastetxeak dira, hezkuntza eta heziketa jarduna dute denek egunerokotasuneko zutabe, eta bidea elkarrekin egitea emankorragoa eta gogobetegarriagoa dela frogatu dute. Erantzunkidetasunean oinarritutako kultura berria marrazten ari dira, eta gainerako herriek eta ikastetxeek ere, lekuan lekuko berezitasunekin, egin dezakete; zergatik ez.

“Bere burua defendatzera behartuta dagoen haurra hobetzen saiatzen da, bere burua indartzen eta aldatzen”

Jorge Oteitza

HILEKO IRUDIA





AMAITU DA IKASTURTEA

Iritsi da ikasturte amaiera. Liburuak, koadernoak eta eskulanak motxilan edo besapean hartu eta etxera eramateko unea. Baratzeak eman duen uzta banatzeko momentua da. Landareak zaintzeko prest daudenek etxera eramango dituzte, udan zimeltzerik nahi ez baldin badute, bederen. Oiloak eta txitak dituztenek ere, nork zaindua bilatu beharko dute. Pertsianak itxi eta atea giltzatu aurreko uneetan poza eta pena, biak antzematen dira haurren aurpegietan, lagunekin egoteko nahiak baldintzatuta. Beste erritmo bateko egunak etorriko dira, eta horiek bizi-tzea dator orain.

Baita irakasleen kasuan ere. Ikasturtean zehar ikasleekin batera gorputz eta arima aritu ondoren, txostenak bukatu, bilerak amaitu, gelei azken ukituak eman, datorren ikasturterako lan batzuk antolatuta utzi, eta giroz eta erritmoz aldatzeko unea da.

Bagoaz, eta itzuliko gara.

Argazkia: Hik Hasi
Zubietan, 2023ko ekainaren 21ean



Herri batean hezkuntzaren artikulazioa oso estrategikoa eta ezinbestekoa da politikoki, hezkuntzatik beste helburu asko lor daitezkeelako. Errenteriako Udalean baieztapen hori paperetik errealitatera eramaten ari dira azken urteetan, hezkuntza arlo estrategikotzat hartua daukatelako eta hezkuntza politikak teknikarien eta zinegotzien artean, bulego batzuetan egin ordez, hezkuntza komunitateko kideekin egin nahi dituztelako. Hala, 'Errenteriako hezkuntza komunitatea saretzen, erantzunkidetasunean sakontzen' prozesua abiatu zuten 2017-2018 ikasturtean, herriko hezkuntza komunitatea sartzeko helburuarekin. Besteak beste, protagonistak diren herriko bederatzi ikastetxeetako zuzendariekin bildu da **Hik Hasi**, elkarrekin egin duten prozesuaren lekukotasuna jasotzeko. Zuzendari taldean egindako lanketaren ondorioz, elkar ezagutzen dute, konfiantzazko eremua sortu dute eta ikastetxetik herriko talaiara zabaldu dute begirada.

GAIA: ELKARLANERAKO KULTURA BERRIA

Erantzunkidetasuna hezkuntzan

Itziar Ostolaza Errenteriako Hezkuntza zinegotzi ohiak argi dio: “Ez dauzkagu hezkuntza kompetentzia nagusiak, baina gu gara herriko ikastetxe guztien ingurune; herria da testuinguru eta horrek batzen gaitu. Eta batzen gaituen heinean, behar indibidual bezain gain, kolektiboak ere topa ditzakegu, gutasuna osatzen dutenak”. Udal gisa gutasun hori erdigunean jartzea zen xedea, hori baita herria. “Zer zen komunitate txiki guztiok amankomunean genuena? Herri bat, bakoitza bere berezitasunekin. Hor hasi ginen gure tokia bilatu nahian”. Berehala konturatu ziren sarea josteko kanpo laguntza beharko zutela eta halaxe abiatu ziren elkarlanean Olaia Jimenez Mondragon Unibertsitateko (Huhezi) irakaslea eta Idoia Aldekoa Elhuyarreko aholkularia errenteriarrei bidean laguntzen.

Prozesuaren ardatzak bi dira: hezkuntza komunitatea saretzea eta erantzunkidetasunez aritzea. Saretzeko, ikastetxeen arteko harremana sustatu behar da eta horretarako, zuzendari taldea osatu zuten. Erantzunkidetasuna da bigarren ardatza, ardura-hartze kolektiboa esan nahi du, bakoitzaren ardura postuaren eta karguaren baitan. Eta

partaide guztiek kate bat osatzen dute, eragile bakoitza katebegi bat delarik.

Aipatu bi ardatzetan oinarrituta abiatu ziren 2017-2018 ikasturtean. Prozesuarekin hasi aurretik Errenteriako UEK Udalak Udal Eskola Kontseilua sortua zeukan eta bertan biltzen ziren zuzendariak, gurasoak, sindikatuetako kideak, langileen ordezkariak, ikasleak... Udalarik diagnostiko bat egiteko eskatu zion Kontseiluak eta horrekin argazki bat osatu zuten. Jarraian, zuzendari taldeak heldu zion diagnostikoaren irakurketa egiteko lanari eta horretan murgildu ziren Errenteriako Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitarteko bederatzi ikastetxeetako bederatzi zuzendariak, hezkuntza zinegotzia eta teknikaria, Irungo Berritzeguneko zuzendaria, eta Huheziko eta Elhuyarreko aholkulariak.

Diagnostikoaren irakurketa partikularretik kolektibora

Hasieran diagnostikoaren irakurketa partikularra egin

zuen ikastetxe bakoitzak. Ondoren, irakurketa partikularra zuzendarien taldera eraman zuten, espazio komuna, gainerakoekin partekatuz. Hainbat aldagai landu zituzten: bakoitzaren errealitatea, konplexutasun maila, titulartasuna, ibilbide historikoa, erronkak, hezkuntza proiektua, segregazio egoerak, hizkuntza kontuak, jatorri kontuak... “Saio asko egin genituen diagnostikoari forma ematen”, dio Jimenezek, eta “errealitatearen ertz desberdinei lekua egiten” azpimarratu du Aldekoak. “Ondoren, herri modura pentsatzen hasi ginen: sistemen arteko harremanetik, nola ikusten dugu Erreteria? Ondorio partikularretik abiatuta, zein izan daitezke ondorio nagusiak eta kolektiboak herri honetan? Lorpena da partikularretik ateratzea eta hezkuntzaren izaera komuna, denona ikustea, hezkuntza eskubidea den heinean. Gainera, ardura hartzeko prozesuan, oso inportantea izan da herri ikuspegira pasatzea”.

Denen artean diagnostikoa adostea zen xedea, eta tentsio uneak ere izan zituzten. Titulartasunari dagokionez, ikastetxe bakoitza nola agertu adostu behar zen, eta desadostasunak agertu ziren. Halere gaitasuna, borondatea eta aurrera ateratzeko nahia handiagoak izan ziren. Hala, partaide bakoitzarentzat funtsezkoak diren alderdiak adostu eta mantendu ziren; eta bidean bakoitzak zerbait uzteko prestutasuna agertu zuen adostasuna eraiki ahal izateko. “Inflexio-puntu bat izan zen guztiontzat, baina ardura hartu genuen; aurrera atera nahi genuen, adostasunetara iritsi, eta bidean denok elkarrekin aurrera egiteko eta espazio komuna eraikitze konpromisoa, zerbait uzteko ere prest egon behar da. Norbere begiradatik eduki behar du, baina denonetik ere asko. Erantzunkidetasunaz ari garenean horretaz ari gara: hezkuntza herri onura da, herri baten garapenerako gakoa da eta espazio komunak eraiki behar dira. Komuna den hori ardura kolektibotik konpondu, kudeatu, proposatu, hobetu... behar dugu”. Horrek zerikusia du hezkuntzaren kalitatearekin.

Behin tentsioak eta inflexio-puntua gaingiduta, diagnostikoa adostuta geratu zen, eta adostasuna eraikitze ahaleginaren ondorioz, taldea kohesionatuago geratu zen. Horrek asko lagundu du ondorengo lanketan eta konfiantzan. Diagnostikoan oinarrituta eta haren ira-

kurketa eginda, ondorioak jorratu zituzten eta, segidan, Erreteriak dituen hamar erronka nagusi zehaztu zituzten.

Hamar erronketatik biri eman zieten lehentasuna —hezkuntzari komunitatean garrantzia handiagoa ematea eta ikasle etorri berrien matrikulazio desorekan arreta jartzea— eta erronkei aurre egiteko ekintza planak diseinatu zituzten. Hasteko unean, ordea, COVID-19aren pandemia iritsi zen eta urtebeteko etena egin behar izan zuten. Etenaldiaren ondoren, bigarren erronkari heldu zioten —desorekak gutxitzeko erronkari— eta TEB Tokiko Eskolatze Batzordea diseinatu eta jarri zuten martxan, 2022ko otsaila eta maiatza bitartean pilotajea egin zutelarik. Ondorioak atera eta ikasturtea bukatzearekin batera, amaiera eman zioten lanketari.

2022-23 ikasturtean, ikasle etorri berrien desorekaren lanketaren ildotik, Ekitatearen aldeko herri-ituna lantzeari heldu zioten. Horretarako, zuzendari taldean LHko eta DBHko ikasleen eta familien sarearekin herrian ekitatearen ikuspuntutik eragiteko eremuak identifikatu eta hobetzeko proposamenak jaso zituzten. Lanketaren emaitza UEKan aurkeztu zituzten eta Udalak konpromisoak hartu zituen. “Udal Eskola Kontseiluan ikasleen presentziarik ez dagoenez, gazteen ahotsa jasotzeko eta parte hartzeko egitura bat sortu nahi da. Horri forma ematen ari gara eta hastapenetan dago”, dio Jimenezek. Esperimentazio eran, Udal Eskola Kontseilu gaztea egiturari forma ematen hasi dira eta jarraituko dute, hainbat ikastetxetako ikasleen arteko harremana sendotzeko eta ikasleen begiradatik herria hobetzen jarraitzeko.

Prozesuarekin jarraitzeko, erronken berrirakurketa eta leheneste ariketa egin dute. Ariketa horretatik, bi erronka berri lehenetsi dira: euskararen normalizazioaren eremuan, komunitatean/herrian euskara erabiltzeko baldintzak eta aukerak hobetzea; eta ikasle guztien aukera berdintasunaren eta kohesioaren eremuan, gizarte, osasun zein beste zerbitzuetatik esku hartzeko modukoak diren haurren eta gazteen kasuetan arreta hobetzea. Familiekin, IGE Ikasleen Guraso Elkartearen arteko harremana sendotzen eta elkarte bakoitzak dituen

“Herria da ikastetxeen testuingurua eta horrek batzen gaitu”

Itziar Ostolaza, Erreteria Hezkuntza zinegotzi ohia

GAIA: ELKARLANERAKO KULTURA BERRIA



beharrak aztertzen aritu dira, behar horiei gertutik ahalik eta erantzun zehatzena emateko.

Balorazioa

Prozesuaren bideratzaileek argi diote horrelako prozesu bat aurrera eramateko udalaren lidergoa ezinbestekoa dela: “Ikuspegia eta konbentzimendua eduki behar ditu udalak, teknikoki eta metodologikoki laguntza emateko prest egon behar du, eta norabidea argi izan behar du. Lidergoak ez du esan nahi protagonismoa, baizik eta prozesua lideratzea, oinarriak jartzea eta norabidea ezartzea, hori komunitatearekin partekatzea eta haiek adosten duten moduan urratsak egitea”.

Horretarako, jakina, baliabideak behar ditu udalak eta Jimenezen eta Aldekoaren iritziz, “eskumenak eskuordetu behar dira, eta eskumenekin batera baliabideak ere bai. Hori plano oso orokorrean, baina gero dena herri mailan sistematizatu behar da. Asko pentsatu behar da plano oso konkretura edo mikrorra eramateko, herri bakoitzak daukan begirada eta hezkuntzako ibilbidea desberdina delako eta ikastetxeen aniztasuna ere handia delako”.

Jimenezek aukera moduan ikusten du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan onartuko den Hezkuntza Lege berrian Udalei eta komunitateari ematen zaion lekua. “Nik uste dut udalek esperimintatzeko dituzten aukerak zabalduko dituela. Gertutasunak, hezkuntza komunitate kohesionatuak eta erantzukizun kolektiboak hartzeko testuinguruak hezkuntzaren kalitatean eragin dezaketela uste dut, ikasleen behar sozialak eta hezkuntza beharrak hobeto —zehatzago, ezagutza handiagorekin eta kolaborazio handiagorekin— erantzun daitezkeelako. Zentzu horretan oso positiboa da, baina horrek ez du esan nahi Eusko Jaurlaritzak eskumena udalei eman behar dienik eta dena hor zentralizatu behar denik. Potentziala badago, baina denak katea osatuz, bakoitza katebegi bat izanez. Horrek kultura politiko berri bat eta elkarlan kultura berri bat eskatzen du. Eta hori landu gabe dago, ez gaude ohituta erantzunkidetasunera ezta elkarlan kultura berrira. Guk Erreterian neurri txiki batean hori esperimintatu dugu. Gainera, ikusi dugu izaera komunitario hori ikaragarria dela, potentzial handikoa, baina aldi berean, dena ordenatzea, asko planifikatzea, asko zehaztea, ongi antolatzea, esperimintatzea eta ebaluatzea eskatzen du”.

“Lorpena da partikularretik atera eta hezkuntzaren izaera komuna, denona, ikustea”
Olaia Jimenez, Huheziko irakaslea

Zuzendarien ahotik

Errenteriako hezkuntza komunitatea saretzeko urratsetako bat izan da zuzendari taldea sortzea. 2018az geroztik elkartzen dira herriko bederatzi ikastetxeetako zuzendariak eta taldearen ibilbideaz eta bidean ikasitakoaz mintzo dira.

Zuzendari taldeko protagonisten ahotik ezagutu nahi izan ditugu prozesuaren joan-etorriak, zuzenean bizi izan dituztelako taldearen osaketa eta garapena, diagnostikoaren lanketa eta Tokiko Eskolatze Batzordearen pilotajea, besteak beste. Sei urteko ibilbidea egina dute elkarrekin, eta *Errenteriako hezkuntza komunitatea saretzen, erantzunkidetasunean sakontzen* prozesuaren benetako protagonistak dira.

Bizarain HLHI, Bizarain BHI, Cristobal Gamon HLHI, Cristobal Gamon BHI, Koldo Mitxelena HLHI, Koldo Mitxelena BHI, Orereta ikastola, Egiluze ikastetxea eta Telleri alde ikastetxea dira Errenteriako derrigorrezko hezkuntzako bederatzi ikastetxeak eta bertako zuzendariak elkarren berri gutxi edo batere ez zuten duela sei urte. Orain, konfiantzazko eta errespetuzko giro lasaia dutela aitortzen dute. “Nik, adibidez, bistaz ezagutzen nituen ikastetxe publikoko zuzendari batzuk, baina bestela ez, oso erlazio gutxi geneukan. Orain, herrian gertatzen denaz ikuspegi orokorragoa dut eta erlazionatzeko beste modu bat ere bai”, dio Arantza Elizegi Cristobal Gamon BHiko zuzendariak. Antzera mintzo da Egoitz Verdugo Orereta ikastolako zuzendari pedagogikoa: “Beste zuzendariak eta haien ikuspegia ezagutzeko eta ulertzeko aukera eman dit taldeak. Herri honetako ikastetxeetan dagoen aniztasuna ikusi eta ulertu dut, eta aberastasun moduan bizi dut”. “Nik garrantzi handia eman diot taldeari hasieratik”, gehitu du Arantxa Igartua Koldo Mitxelena BHiko zuzendariak. “Guri inork ez digu erakusten zuzendari izaten eta ona da beste ikastetxeetan zure rol berean zein dauden eta zer egiten duten

ikustea. Niretzat beharra zen elkartzea eta herri mailako foro bat edukitzea oso egokia iruditzen zait”. Herriko hezkuntza sistema nola egituratuta dagoen ezagutzeko aukera eman diola gehitu du. Pili Sesen Bizarain HLHIko zuzendariak dioenez, “oso interesgarria da hainbesteko desberdintasunak dituzten ikastetxeetako zuzendariak elkartzea, bakoitzak atzetik dakarrenarekin. Zuzendarion artean sare bat sortu da, elkarri laguntzen diogu, berdin da zein ikastetxetako izan. Hori lehen ez zegoen eta orain bai. Oso positiboa da, dudarik gabe”.

Denek ahobatez diote giro lasaia eta konfiantzazko eremua lortu dituztela. “Nire iritzia lasai asko bota dezaket, badakit ez nautela epaituko, ulertuko nautela edo saiaturiko direla nire tokian jartzen, eta horrek guztiak niretzat sekulako balorea dauka. Hori lana eginda lortu dugu eta ondorengoek emaitza jasoko dute”, dio Igartuak. Lan horren zatietako bat izan da aurretik zeuzkaten aurreiritziak albo batera uztea, Cristina Jareño Egiluze ikastetxeko zuzendariaren ustez: “Eskola bakoitzeko egoerak barrutik ezagutzeko aukera izan dugu, errealitate bakoitza ikusi dugu eta horrek aurreiritziak haustea ekarri du. Hori izan da positiboena, batez ere une honetan gizartean hezkuntzaren inguruan publikoen eta itunduen egoerari buruzko informazioak eta desinformazioak sortzen duen deserosotasuna ezagututa”.

Sara Herranz Cristobal Gamon HLHIko zuzendari ohia- ren iritziz “enpatia ariketa ikaragarria” izan da. “Denok ditugu harro gauden gauzak eta horietaz hitz egitea oso erraza da. Baina denok ditugu hain harro ez gauden

“Ikastetxeko perspektibatik atera eta herriko ikuspegia edukitzea ekarri dit”

Josu Curiel, Bizarain BHiko zuzendaria

GAIA: ELKARLANERAKO KULTURA BERRIA

gauzak ere, eta horiei buruz hitz egitea delikatuagoa da. Bada, horietaz ere hitz egitea lortu dugu. Prozesua oso-oso polita izan da, oso aberasgarria, gure artean elkartzeko eta elikatzeko asko eman du, baina gogorra izan da”.

Gogorra eta beldurra hitzak erabili ditzute Elizegik eta Igartuak: “Talde dinamikak oso gogorrak egiten zitzaizkidan, ia ez genuelako elkar ezagutzen eta, gainera, ikastetxean lana egiteke utzi nuen sentsazioarekin etortzen nintzen hasieran”, dio Elizegik. “Baina gero, taldea girotzeko dinamikak oso inportanteak direla ohartu gara”, gehitu du Igartuak. “Bilera guztietan egin ditugu talde kohesioa lortzeko, konfiantza giroa indartzeko, errespetua lantzeko eta enpatia jorratzeko dinamikak eta nik uste dut horrek asko lagundu duela”, gaineratu du Herranzek. “Prozesua polita eta oso interesgarria da, baina gainkarga ere bihurtzen da askotan, eta horrek ez du errazten”, dio Sesenek. Iritzi berekoa da Jon Saez Telleri aldeko zuzendaria: “Ziurgabetasuna eta lan handiagoa ekarri dizkit niri”.



Zuzendarien taldetik ikastetxera

Ikastetxera itzuli eta talde honetan landutakoa lankideei azaltzea zaila suertatu zaie, bizi izan gabea biziaraztea ez baita erraza. “Batuetan emozio handiko bizipenak izan ditugu bileretan eta ikastetxera emozio horiekin joan eta haiek beste mundu batean daude, ez dute ulertzen” dio Igartuak. “Zaila da hemengo enpatiarekin lortutakoa adieraztea eta gainera, kurioa da, zeren joaten naiz hemen erabakitako zerbait komentatzera eta lankideek itunpekoak defendatzen ari naizela esaten didate”, dio Cristobal Gamon eskola publikoko zuzendari ohiak. “Gure eskolara joandakoan, hemen hartutako konpromisoak hartzeko konbentzitu egin behar izaten ditugu, baina hemen egin dugun prozesua egin gabe. Hori kudeatzea konplexua izan da”, aitortu du Verdugok. Itziar Ostolaza Hezkuntza zinegotzi ohiak dio oso klima desberdineko guneak direla zuzendarien taldea eta ikastetxeak. “Konplexua da hemen bizitakoa haietara eramatea eta erronka gisa planteatuko nuke”.

Une zailak gainditzeko irmotasuna

Krisiak eta tentsio uneak bizi izan arren, gainditzeko lortu dute eta horretarako gakoak izan diren puntu batzuk aipatu dituzte. Hasteko, bilerak ongi bideratuta egotea. “Gida ezinbestekoa izan da, bestenaz ziur nago ez ginela hemen egongo, eta, are gutxiago, modu honetan, seguru”, dio Herranzek. “Momentu batean denok mahai gainean jarri genituen karta guztiak eta adostasun batera iritsiko ginela erabaki genuen. Zeren gerta zitekeen baten batek ‘ni banoa’ esatea. Eta ez, aurrera egingo genuela erabaki genuen. Baina horretarako, oso lan ona egin dute Olaiak eta Idoiak”.

Elizegik konpromisoa azpimarratu du: “Aurrera egitea erabaki genuenean, konpromisoa hartzen genuela esan genuen, eta behin konpromisoa hartuta, hasitakoari amaiera eman behar zaio”. Igartuak harago doan konpromisoa aipatu du: “Ikusita udalak hezkuntzarekiko

“Denok mahai gainean jarri genituen karta guztiak eta adostasun batera iritsiko ginela erabaki genuen, aurrera egingo genuela”

Sara Herranz, Cristobal Gamon HLHIko zuzendari ohia

duen inplikazioa, nik pertsonalki eta zuzendari moduan erantzun egin behar dudala uste dut; egin behar dut bai ala bai”. “Gainera, denen artean hartutako konpromisoa izanik, bertigoa ematen du ‘ni banoa’ esateak. Ezin genuen hori egin, txarra zelako norberaren eskolarentzat, hezkuntza komunitatearentzat eta herriarentzat”, gaineratu du Verdugok.

“Lanketa guztia egin dugu guk horretan sinesten genuelako eta gure borondatez jarri dugulako gure herrirako eta gure ikastetxeetarako”, dio Herranzek. “Taldea hau, komunitate hau, herri hau, erronka serioei heltzeko kapaz izan da”, gehitu du Verdugok. “Ausartak izan gara”, azaldu du Herranzek. “Bai, gai serioak hartu dira”, aitortzen du Aitor Sarasua Cristobal Gamon HLHIko zuzendari berriak: “Gai errazago batekin has zitezkeela pentsatu nuen nik, aisialdiarekin edo horrelako zerbaitekin. Denok lasaiago, gustura eta pozik amaituko genuen, baina ez zuen emango hainbeste eztabaidatzeko adina. Tokiko Eskolatzeko Batzordearen gaia, adibidez, serioa izan da, tentsioak egon dira eta gaingitu direnez, taldea asko kohesionatu da”. “Bilera zailei irtenbidea emateko, konpromiso batera iritsi behar izan dugu, eta finean, horrek eragin du talde gisa gero eta gehiago pentsatzea, poliki-poliki. Eta horrek, jakina, kohesionatu egin gaitu”, dio Josu Curiel Bizarain BHIIko zuzendariak.

Udalaren lankidetzak

Irungo Berritzeguneko zuzendari Marivi Fernandezek ere parte hartzen du taldean, “baina protagonismoa zuzendariari emanez”, azpimarratzen du. “Nahiz eta momentu askotan nire iritzia eman, azalpenak eman edo ekarpenak egin, beste momentu askotan isilik egotea izan da nire egitekoa. Hori oso garbi daukat, ni bidelaguna naiz, protagonistak haiek dira”.

“Udala ere erraztailea izan da uneoro eta garbi dago udalak ere seriotasunez hartu duela”, dio Verdugok. “Gainera, askatasun osoa eduki dugu eta denon artean egin dugu bidea”, gehitu du Herranzek. “Hori da, ez da markatzen eta erabakitzen saiatu”, gaineratu du Verdu-

gok. “*Lankidetzak* hitza jarriko nuke, hizki larritz”, boroildu du Herranzek. “Udalak, bere iritzia ginetik, taldearekin sustatu du”, ihardetsi du Elizegik. Ostolazak dio politikari roletik erronka itzela izan dela: “Politika modu partekatuan lantzeaz hitz egiten dugu eta hori da guk egin duguna. Batzuetan asmatuko genuen eta besteetan ez. Jakina, mantsoagoa da, denbora gehiago eskatzen du, inbertsio ekonomiko handia, eta guk modu kontzientean egin dugu”.

“Nik uste dut udalaren ekarpenik handiena izan dela herri gisa hezkuntza beharrei erantzuteko ikuspegia ematea, herri moduan pentsatzen jarri gaitu eta hor gure ekarpenak eskatu dizkigu. Horrek, niri behintzat, ikastetxeko perspektibatik ateratzea eta herri mailako ikuspegia edukitzea, ezagutzea eta partekatzea ekarri dit. Herri gisa zer egin dezakegu? Guztiok egin behar dugu elkarrekin”, azaldu du Curielek.

Irungo Berritzeguneko zuzendariak taldea indartua ikusten du eta, une honetan, beste gai batzuei buruz hizketan jarraitzen dute. “Nik oso ongi baloratzen dut prozesua, oso-oso baliagarria izan da. Zaila izan da, baina prozesu baliotsuak ez dira errazak izaten. Jarraipena egongo da, eta merezi du, dudarik gabe”.

Leire Zarra Koldo Mitxelena HLHIko zuzendari ohiak ere ez du zalantzarik: “Elkarlanak bideak ireki dizkigu hainbat gauzen inguruan. Orain bat eginda gaude eta ildo bera hartzeak sendotasuna eta nortasuna ematen du. Lankidetzan antolatzen diren gauzak betiere gusturago egiten dira. Nik iaz utzi nion zuzendari izateari eta leku-koa hartu duen kideari, Amaia Jauregiri, bi hitzetan hala azaldu nion: elkarlana eta herriko sarea sortu dugula eta horrek gure arteko gertutasuna eta lankidetzak ekarri dituela. Horregatik, jarraitzeko, erreleboa ongi egitea garrantzitsua iruditzen zitzaidan, eta hainbat bileretara elkarrekin etorri ginen. Orain, berak jarraitzen du”. Jareñok uste du sektore guztiak saretu beharko liratekeela. “Iritsi da momentu bat non konpetentzia garen baina ez garen. Hau da, elkarrekin egin behar dugu lana edozein sektoretan, eta horrela lortuko dugu helburua aurrera ateratzea. Gure ikasleak balio batzuekin hezi behar ditugu eta elkarlanean jarraitu behar dugu”.

“Taldea hau, komunitate hau, herri hau, erronka serioei heltzeko kapaz izan da”
Egoitz Verdugo, Orereta ikastolako zuzendari pedagogikoa

Tokiko Eskolatze Batzordearen pilotajea

Matrikula biziaz harago begiratu eta ikastetxeetako atzerritar kopuruaren desoreka orekatzea helburu izanik, Tokiko Eskolatze Batzordea (TEB) diseinatu (Udalak eta Hezkuntza Sailak osatutako erakunde arteko mahaia) eta jarri zuten martxan Errenterian. Hainbat egitura eratu ziren prozesua bermatzeko. TEB, Hezkuntza zinegotziak eta teknikariak, Berritzeguneko zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak osatu zuten eta haren zeregina zen euskal hezkuntza sisteman matrikulazio-epez kanpo sartu diren Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko hezkuntzako ikasleen eskolatze-eskaerak jasotzea eta zein ikastetxetara bideratu zitezkeen proposatzea, betiere segregazio mailak eta desorekak gutxitze aldera.

Batzordeak ez zuen erabakimenik, aholku emailea zen. Eskolatze-proposamenak egiteko, 1/2018 Dekretuko irizpideak zehaztu eta lehenetsi ziren zuzendari taldean, eta bestetik, ikastetxe bakoitzeko ikasmila bakoitzean dagoen aniztasuna datuetan jasotzen zuen tresna sortu zen. Prozesuaren jarraipenaz eta ebaluazioaz zuzendari taldea eta Berme batzordea arduratu ziren. Zuzendari taldeak hilero gainbegiratzeko zituen datu guztiak eta eskolatze proposamenen arrazoiak. Epez kanpo iritsitako 3-16 urte bitarteko ikasleekin egin zuten pilotajea, 2022ko otsailetik maiatzera bitartean.

Udalak harrera bulegoa ireki zuen familiei harrera egiteko. Garrantzitsua da familiei udalerrian harrera egiteko eta haien beharren identifikazio-lana egiteko TEBaren planteamendua eta helburuak eta udalerriko hezkuntza eskaintzari buruzko informazioa izatea.

TEBaren helburua atzerritar jatorriko ikasleen kopurua orekatzea izan da. Norabide horretan, TEBak epez kanpoko matrikula berriak ikastetxe publikoetara bideratzeko ohiko banaketa-joera aldatu daitekeela frogatu du. Lanketa denentzat interesgarria eta aberasgarria izan dela uste dute zuzendariak. “Horrelako gauza bat egiteko kapazak garela ikusi dugu eta baliagarria izan da guk egindako gauza txiki batek norainoko eragina izan dezakeen ikusteko”, dio Igartuak. “Baina helburua segregazioa ekiditea zen eta hori ez da lortu”, dio Elizegik, “egin

dugun bidea ez da egokia”. “Ez da soilik bidea”, gehitu du Igartuak, “pilotajea egin bitartean araudiarekin, legearekin... topo egin dugu eta gure mugak ikusi ditugu”. “Kristalezko sabaia izan da araudia, eta asko mugatu gaitu”, adierazi du Herranzek.

Prozesuan hainbat zalantza agertu dira, agerian geratu delarik baldintza asko bermatu behar direla Tokiko Eskolatze Batzordeak ongi funtziona dezan:

- **Finantziarioa:** etorri berriak diren familietan jarri behar da arreta, matrikulatuko den ikastetxearen sarea edozein izanik ere. Bestelako egiturazko neurriak ez bada aztertzen, ezin da bermatu itunpeko ikastetxetara bideratzen diren ikasleen familiek kalte ekonomikorik ez dutela jasango edo gehiago ez dutela ordaindu beharko.
- **Udalaren lidergoa ezinbestekoa da eta baliabideak izatea ere bai:** ikastetxeetako baliabideak oro har eta hezkuntza-laguntza premiei erantzuteko baliabideak garaiz izatea, garraioa, gizarte zerbitzuen laguntza...
- **Zalantza etiko-morala:** zergatik esperimentatu da familia zaurgarriekin bakarrik? “Gogorra da, pertsonen egiten dugulako lan. Zergatik banatuko ditugu soilik ikasle horiek? Zergatik ukatzen zaie horiei ikastetxea aukeratzeko eskubidea eta gainerakoei ez? Alderdi etikoa mahaigaineratu egin behar da”, baieztatu du Irungo Berritzeguneko zuzendariak.

“Halere, probatu egin behar zen, ikasi egin dugu eta horretaz hitz egin dezakegu orain”, dio Sesenek. “Gauzak aldatu nahi baldin baditugu, aldaketak egin behar dira, eta horretarako balio izan du pilotajeak, nahiz eta segur aski biderik egokiena ez dela izan konturatu”, gehitu du Verdugok. Pilotajearen hasieran onura komunari eta eskolatze inklusiboari eta orekatua lortzeko pisu handiagoa eman zitzaion. Pilotajearen ondoren, familien hautuan esku-hartzeak joera aldatu dezakeela ikusi da, hala ere, familia zaurgarrienetan baino, familia guztietan arreta jarri beharra azaleratu da. “Balantza baten aurrean jarri gaitu: zeri eman lehentasuna, herri onurari ala norbere lehentasune? Biak dira inportanteak, baina momentu batean erabaki egin behar da”, dio Jimenezek.



“Euskal herritar guztiok izan
behar dugu euskal dantzaren
hizkuntza gure gorputzean”

ELKARRIZKETA: OIER ARAOLAZA

DANTZARIA, ANTROPOLOGOA ETA KAZETARIA

‘Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan’ izeneko doktorego tesia ondu zuen Oier Araolaza dantzari eta antropologoak (Elgoibar, 1972). Historia eta tradizioa oinarri hartuta, euskal dantza euskaldunon gorputz hizkuntza dela aldarrikatzen du, eta egun analfabeto hazten ari garela irizten dio. Argi dauka hezkuntza sisteman txertatu behar dela dantza, dituen onurengatik eta beste leku batzuetan egiten dutenaren bidetik: “Gaur egun hezkuntzan txertatuta

dagoen gorputz heziketaren aurretik jarri beharko litzateke dantza. Edozein gai, gure gorputzetik pasatzen dugunean, ‘badakit’ izatetik, ‘badaukat’, izatera pasatzen da”. Goi mailako ikasketetatik hasi beharko litzatekeela uste du, baina hezkuntza ibilbide osorako baliagarri ikusten du dantza. Araolaza, dantza ikertzailea izateaz gain, dantza irakaslea ere bada, eta euskal dantzari buruzko *dantzan.eus* webgunearen sortzailea eta kudeatzailea da.



Hasteko eta behin, dantza komunikazioa dela diozu. Garatu al dezakezu ideia hori?

Dantza komunikazio moduan ulertzen dut, baina dantzaren auke-retako bat da hori. Badago dantza espresio artistiko moduan ulertzen duenik, arte moduan ulertzen duenik, gimnastika moduan ulertzen duenik, erlazionatzeko modu bat balitz bezala bizi duenik... Nik garbi ikusten dut guztietan ere funtzio komunikatiboa beti hor dagoela, kontzienteki edo inkontzienteki.

Gorputz hizkuntzaren eta berbazko hizkuntzaren arteko paralelismo bat ari gara defendatzen azken urteetan. Euskal munduak apustu garbia egin du, eta gure identitatearen ardatzean berbazko hizkuntza, euskara, jarri du; ez zeukan zertan horrela izan. Erabaki horrek berbazkoak ez diren hizkuntzen gutxiespena ekarri du. Horren ondorioz, guk berezkotzat jotzen dugun euskal dantza ere gutxietsia eta mespretxatua izan da; batetik, argi eta garbi, ez delako euskara, ez delako berbazkoa; eta bestetik, ez dakit ezjakintasunagatik

edo aurreiritziagatik, atzerakoitzat jo izan delako eta folklorearekin eta tradizioarekin lotuta agertzen zaigulako euskal dantza.

Euskalduntasunaren ikur nagusiak aztertzen baldin baditugu, argi eta garbi ikusiko dugu dantza presente dagoela, eta ez nolanahi: Etxepareren poema ezagunenak *Kontrapas* eta *Sautrela* dira; biak dantza generoak dira. Euskara mundura ateratzeko erabiltzen dituen metaforak, bi kasuetan, dantzari lotutakoak dira, *jaldi gaitezen plazara dantzara*, *atera dezagun euskara plazara*. Dantza bere izatean guztiz barneratuta daukan ikusmolde batetik soilik uler daiteke hori. Gaur egun, begirada hori guztiz erauzita daukagu.

Zergatik diozu hori?

Eskola guztietan lantzen da Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*, baina ez dakit inork aipatzen ote duen dantzaz ari dela Etxepare. Lazarragarekin berdin: “Ez gueiago decoro jaquin / pabaneagaz baja”, dio; dantzaz ez badakigu, ezin dugu ulertu *pavana* Erdi Aro Berantia-

rrean eta Aro Modernoaren hasieran Europa osoan modan egon zen dantza dela, eta *bajea baja danza* dela, *alta danza* eta *baja danza* baitziren garai horretako bi genero nagusiak. Aurrerago ere berdin: XX. mende hasierako pizkundea ezin da ulertu dantzak jokatu zuen funtsezko rola ulertu gabe. Abertzaletasunaren mugimenduan oinarritzko tresna izan zen dantza. Eusko Alderdi Jeltzalea fundatu zenean, elkarrekin dantzan ospatu zuten lehen batzokiaren inaugurazioa; lehen Aberri Egunean, elkarrekin soka dantzan aritu ziren garaiko agintari politikoak. Eusko Ikaskuntza fundatu zenean (Oñati, 1918), elkarrekin dantzan ospatu zuten, eta han bildu ziren garaiko intelektualak eta agintariak. Momentu garrantzitsu horietan guztietan, dantza erdigunean egon da, herri honen eta kultura honen adierazpide berezkoa izan delako. Hori guztiz galdu da azkeneko 50 urteetan. Dantzarekiko kontzientzia ere erauzi egin dugu gure gorputzetatik.

Dantzaren balioa aldarrikatzeko

egiten dugu hizkuntzarekiko paralelismoa: euskal dantza euskaldunon gorputz hizkuntza da, euskara euskaldunon berbazko hizkuntza den neurri berean, eta, gainera, hizkuntza bati eskatzen zaizkion ezaugarri guztiak ditu: lexikoa, esanahia daukaten oinarritzko egiturak; bere gramatika eta sintaxia; estetika propioa dauka, ahoskera eta sonoritatea. Tradizio literarioa ere badu, metafora sistema bat eta kontatzeko modu propioa. Berbazko hizkuntzak funtzionatzen duen modu antzekoan, dantzariak bereizi ditzakegu dantzatzeko eragatik, pauso bera interpretatzeko moduagatik badakigu zer testuingurutatik datorren.

Dantzak irakasten diren garaian transmititu al da formaz haragoko esanahi hori dena?

Oso gutxi edo ezer ere ez. XX. mendean, izugarritzko aldaketa gertatu zen transmisioan. Hainbat mendez, dantzaren irakaskuntza jasoa izan da, eta baita euskal dantza-rena ere; prestakuntza maila altuko irakasleak irakasten zuen. Dantza maisuen figurak indar handia izan du Europa osoan XVI. mendetik XIX. mendera arte, toki batzuetan baita XX. mendera arte ere. Euskal Herriko kasuan ere halaxe zen. XX. mendearen erdi inguruan, frankismo garaian, dantza taldeek ordezkatu zuten dantza maisuen transmisio eredua. 70eko hamarkadan dantza taldeak sortu zirenean, dantza taldeek beste eredu bat ekarri zuten, antzinako molde bertikal eta autoritario horri lotutakoaren aldean taldekoagoa, horizontalagoa. Aurreko moldean, pertsona batek zeukan transmisioaren ardura, baina pertsona horrek aurretik urte askotako formakuntza jasotzen zuen bere maisuarengandik. Dantza taldeen ereduak, zikloak oso motzak izan dira; oso gazte dantzan hasi dira, oso gazte hasi dira irakasle, eta oso ziklo motzak izan dira; ez du astirik ematen.

Gaur egun, nagusiki, eskolaz kanpo ikasten den jarduera bat da dantza, aipatu duzun dantza taldeen ereduak. Zuk euskal dantzak eskola

orduetan irakastea proposatuko al zenuke?

Bai, argi eta garbi. Nire ustez, hezkuntzan, euskal dantza, eta dantza, orokorrean, beharrezkoa da. Dantza, orokorrean hartuta, berbazko hizkuntza-gaitasunak lantzea bezala izan daiteke, baina hortik aurrera, behin dantza gaitasun horiek aktibatzeaz aurrera, behar-beharrezkotzat jotzen dut gure gorputz hizkuntza eta gure euskal dantza eskolan irakastea. *Euskal dantza* esaten dut, ez *euskal dantzak* pluralean; horrek errepertorio bati egiten dio erreferentzia, baina nik euskal dantzaz hitz egiten dut, hizkuntza den aldetik. Iruditzen zait euskal gazte edo herritar guztiok izan behar dugula hizkuntza hori gure gorputzean, euskara gure mingainean izan behar dugun neurri berean; bestela, gorputz analfabetoak ari gara garatzen, dantzan analfabetoak hezten, gure kulturen eta gure gorputzak dituen adierazpen aukeretan adierazteko eta garatzeko tresnak eskaintzen ez dizkiegun gorputzak.

Zer ekarpen egingo lioke euskal dantzak haurrari, ikasleari?

Hasteko, dantza bera, oro har, gorputz adierazpen eta gorputz heziketa den aldetik, guztiz beharrezkoa dela iruditzen zait, gaur egun hezkuntzan txertatuta dagoen Gorputz Heziketaren aurretik jarri beharrezkoa. Gorputz Heziketa, gaur egun pentsatua dagoen bezala, garai bateko gimnasiaren eta kirolaren arteko egokitzapen bat da. Gorputz Heziketan aritzeko erabiltzen diren tresnak kirolerako erabiltzen diren berberak dira. Ez dut esaten curriculumetan, programetan, helburuetan edo konpetentzietan horiek daudenik, baina jarduteko moduan kirolaren kutsadura izugarria da Gorputz Heziketan, eta oso barneratuta daude jarrera lehiakorak edo mundua hierarkizatu eta ordinalki antolatzeak ikuspegiak. Dena da gehiago, gehiago, gehiago, azkarago, altuago, luzeago... eta horren arabera antolatzen da guztia.

Eta dantzak gozamenari egingo lioke leku?

“Dantza, orokorrean hartuta, berbazko hizkuntza-gaitasunak lantzea bezala izan daiteke, baina hortik aurrera, behin dantza gaitasun horiek aktibatzeaz aurrera, behar-beharrezkotzat jotzen dut gure gorputz hizkuntza eta gure euskal dantza eskolan irakastea”

“Gorputz analfabetoak ari gara garatzen, dantzan analfabetoak hezten, gure kulturen eta gure gorputzak dituen adierazpen aukeretan adierazteko eta garatzeko tresnak eskaintzen ez dizkiegun gorputzak”



Ez, dantza ez da ideala, eta dantzan ere badaude oso jardun toxikoak. Bere burua dantza guztiaren amatzat hartu duen dantza, ballet klasikoa, dantzaren minbizirik okerrrena da, argi eta garbi. Hain zuzen ere, kirolaren ereduarekin funtzionatzen duelako, eta kanon eta eredu irrealak jarri dituelako, ezinezkoak. Zorionez, ballet klasikoaren toxikotasun hori oso elitista da gaur egungo dantzaren munduan, eta espazio mugatu batzuetan gelditu da. Dantzak, berez, guztiz modu inklusiboan aritzeko aukera ematen du eta, batez ere hezkuntzaren ikuspuntutik ederrena den aldetik, aniztasunaren goraipamena egiten du, eta pertsona guztiak hartzen ditu barnean. Dantzan ez luke desberdintasunak arazo izan behar, baizik eta, hain zuzen ere, desberdintasun hori da bere baliorik handiena. Zentzu horretan, dantza beharrezko tresna da hezkuntzan. Finlandian

horri guztiari buruzko gogoeta egin dute, eta konturatu dira kirol gutxiago eta dantza gehiago sartu behar dutela hezkuntzan, tresna horrek ematen dituen baliabideak oso aberatsak direlako.

Finlandia aipatu duzu, beste eredurik ezagutzen al duzu?

Ez dugu eredu askorik ezagutzen. Euskal Herrian, oso kontziente gara belaunaldiz belaunaldi gero eta gutxiago dantzatzeko dela, eta baita ikastetxeetan ere. Garai bateko heziketan, ordaindu zezaketenek soilik jasotzen zutenean, dantza guztiz funtsezko ikasgaia zen. Jesuiten ikastegietan dantza irakasten zen; Real Sociedad Vascongada de Amigos del Paisek beren semeentzako —hasieran semeentzako bakarrik— seminarioa sortu zutenean Bergaran, dantza irakasten zen, eta dokumentazioak erakusten du kanpotik ekartzen zituztela dantza

irakasleak. Formazio militarrean, oinarrizkoa zen dantza. Napoleonek nahitaezko lehenbiziako soldaduska martxan jarri zuenean, mutil guztiek dantza ikasten zuten. Lotura handia du horrek Zuberoako dantza teknika hain garatuarekin, zuberotar hainbat belaunaldi akademia horietatik pasatu baitziren, eta dantzako irakasle tituluak atera zituzten. XX. mendean zehar ere, seminarioetan dantza irakasten zen. Lekarozen, adibidez, dantza baliatzen zuten prestakuntza integralerako tresnatzat. Historian zehar, ohikoa izan da dantzaren erabilera hezkuntzan.

Curriculumek zer diote dantzaz?

Hezkuntza sistematik guztiz kanpo dago dantza. Duela urte batzuk, Ikastolen Elkartetik euskal curriculumak garatzen aritu zirenean, curriculumean dantzari zegokion atala garatzeko eskaera egin zidaten. Musikako ikasgaian jasotzen zen dantza jorratzeko aukera. Idatz dezakegu dantzaz hau eta hori landu behar dela eskolan, baina nork landuko du gero hori eskolan? Hori galdetu nuenean, erantzuna izan zen Musikako irakasleek erakutsiko zutela dantza. Baina nik esan nien Musikako irakasleak ez daudela horretarako trebatuta eta prestatuta, eta ez da ikastaro batzuekin konpontzen. Musikako irakasleei ondo irudituko litzaieke dantzariak musika irakastea? Ez, ezta? Musika, nahiko larri, baina hezkuntza sistemaren barruan dago; dantza, ordea, guztiz kanpoan dago. Eta ez soilik hezkuntzan orokorrean, baita goi mailako hezkuntzan ere. Irakasleak prestatzen diren tokietan, ez dago dantzarik. Irakasleentzat, hizkuntza arrotza da dantza.

Lehen Zuberoa aipatu duzu; eza-gutzen al duzu dantza eskolako praktikan integratuago daukaten eredurik?

Badaude proiektu zehatzak. Ikastetxe batzuetan, ikastetxearen proiektuan daukate sartuta dantza. Ikasturte batean, ikasle guztiek lantzen dute dantza. Baina, kasu gehienetan, eskolaz kanpoko jarduera moduan eskaintzen dute dantza.

Gorputz Hezkuntzan ere, programazio gehienetan jasota dago ikasturteren batean euskal dantza jorratzea, baina, Garaturen bidez Gorputz Hezkuntzako irakasleei ikastaroak ematen aritu ginenean, ikusi genuen irakasle horien gabeziak ikaragarriak zirela. Astebeteko ikastaro batean ezin duzu konpondu egiturazkoa den gabezia bat. Gainera, Gorputz Hezkuntzako irakasle askorentzat oso gai zaila gertatzen dela sumatu genuen, gela askotan herriko dantza taldean ari diren ikasleak dauzkate, eta umeak konfiantza handiagoarekin sentitzen dira hizkuntza horretan irakaslea bera baino. Irakasleen autokonfiantzaren eta segurtasunaren eremua zulatu egiten da, ziurtasunik gabe abordatzen duelako eta ikasle batzuek irakasleak baino hobeto dakitelako non zapaltzen duten.

Badaude bestelako esperientzia oso interesgarriak ere, dantza edozein ikasgaitan zeharka erabiltzen dutenak, ikasgai horretako gaiak lantzeko. Fisikan, adibidez, grabitate edo masen desplazamendua eta marruskadurak lantzeko, edo matematikako kontzeptuak barneratzeko orduan... Dantzak ikaragarriko indarra dauka, gorputzarekin funtzionatzen duelako, eta horrek balio handia dauka hezkuntzan, gorputzetik pasatzen ditugun ezagutza berri horiek beste dimentsio bat hartzen dutelako, buruan soilik uzten ditugunean hartzen ez dutena. Edozein gai, gure gorputzetik pasatzen dugunean, “badakit” izatetik “badaukat” izatera pasatzen da.

Nola prestatuko lirateke dantza irakasle horiek? Zein da goi mailako ikasketetan dantzak daukan lekua?

Behetik begiratuta, azken etapa gisa ikusten da dantzako goi mailako ikasketena, baina azpitik gauzak aldatzea eragozten duen oinarria da. Eztabaida hori sortzen denean, etxea teilatutik hastea bezala dela esaten dute batzuek, eta hala da, bai, baina Amazonian etxeak teilatutik egiten hasten dira, edozein momentutan botatzen duen zaparrada horri erantzuteko, teilatua babesa behar baitute. Euskal dantzaren eta

dantzaren kasuan hor gaude: ez baldin baditugu hezitzaileak eta goi mailako trebatuak prestatzen, haiek ezingo dute azpiko mailetan ezer egin. Eta zer daukagu goiko mailetan? Tragedia bat. Dantza erregimen berezian dago Espainiako estatuko hezkuntza markoan, eta ez dago unibertsitate sisteman. Munduan, normalena da dantza, musika edota antzerkiko goi mailako ikasketak unibertsitatean ikasteko aukera izatea, beste edozein alor bezala.

Genero ikuspegia oso garrantzitsua da honetan guztian, horrek azaltzen du zergatik dagoen dantza sistematik kanporatua. Eta ez bakarrik hezkuntzan. Euskalgintzan ere oso argi ikusten dut: gorputza erabat kanporatu da euskal identitateetik azken 50 urteetan. Euskal identitatearen, euskal izaeraren eta euskalduntasunaren muinean, hizkuntza eta berbazko kultura ezartzea oso lotuta dago genero identitatearen eta bakoitzaren jardueren bereizketarekin. Hizkuntza maskulinitatearen gotorleku bihurtu da; eta gorputza feminitatearen adierazle bihurtu da. Euskal munduaren diseinatzaileak gizonezkoak izan dira, eta maskulinitateetik eraiki dute euskalduntasuna.

Aldiz, zuk tesian diozu garai batean ez zirela bereizten gizonen eta emakumeen dantzak, rol eta estereotipo horiek ez zeudela markatuta.

Ñabardura egin beharko nuke, ez zeudela “hain” markatuta esango nuke. Generoa ez zen dantzak sailkatzeko erabiltzen zen kategoria. Horrek ez du esan nahi zenbait testuingurutan ez zutenik gizonezkoek bakarrik dantza egiten; are gehiago, testuinguru gehienetan gizonezkoek soilik egiten zuten, boterearekin lotutako testuinguruetan, dantzaria erdigunean baldin bazegoen, oihartzun publikoarekin eta pribilegioarekin lotuta baldin bazegoen, jakina, horiek gizonezkoen espazioak ziren. Baina ez ziren gizonezkoen dantzak, espazio hori zen gizonezkoena. Zeren gero, beste espazio batean, emakumeek egin zezaketen dantza bera eta modu berean.

“Dantzak ikaragarriko indarra dauka, gorputzarekin funtzionatzen duelako, eta horrek balio handia dauka hezkuntzan, gorputzetik pasatzen ditugun ezagutza berri horiek beste dimentsio bat hartzen dutelako”

“Hizkuntza maskulinitatearen helduleku edo gotorleku bihurtu da; eta gorputza feminitatearen adierazle bihurtu da. Euskal munduaren diseinatzaileak gizonezkoak izan dira, eta maskulinitateetik eraiki dute euskalduntasuna”

ESPERIENTZIAK

EUSLE EGITASMOA. BILBOKO ZAZPI LANDA ESKOLA

Euskarari eta babesari eusten

Ikasle etorri berriak hartzeko programa da Eusle. Euskaraz murgiltzeko eredua da, baina baita harrera programa bat ere. Izan ere, euskara ikasteko laguntzaz gain, bestelako laguntza eta babesa ere behar izaten dute iritsi berri diren ikasle horiek. Bilboko Zorrotza auzoko Zazpi Landa eskolako esperientzia zoragarria izaten ari dela diote arduradunek.

Marienci Villate Eusle programako tutorea da Bilboko Zorrotza auzoko Zazpi Landa ikastetxean. Iaz jarri zuten abian Eusle programa Zazpi Landan, eta esperientzia zoragarria izaten ari dela dio Villatek. Sei ikaslerekin hasi zuten 2022-23 ikasturtea eta orain bederatzi dira Euslen parte hartzen ari direnak. Ikasleek euskaraz komunikatzeko gaitasuna lortu dezatela da Eusleren helburu nagusia, baina beste hainbat alderdi ere kontuan hartzen dituzte: “Ezin dugu ahaztu umearen eta taldearen ongizate emozionala kontuan izan behar dugula, eta alderdi hori asko lantzen dugu. Taldea kohesionatua dago; ikasleek elkarri laguntzen diote; lanerako prest daude beti; norbaitek zerbait txarto esaten badu ez dute barre egiten, gauzak ongi esatean, berriz, txalotu; egiten dute... Zoragarria da euskaraz esaldi sinpleak esateko gai direnean umeen aurpegietan poza ikustea. Nolako argia haien begietan!”.

Zazpi Landan, LH 4., 5. eta 6. mailakoak batera egoten dira Eusle gelan eta denak familia baten mo-

dukoak direla dio Villatek: “Haien arteko harremana asko sendotzen da”. Ikasleen artean atxikimendu berezia sortzen da eta euskara ikasten doazen heinean, ahaldundu egiten dira. Euskaraz aritzeko ohitura ere hartzen dute: “Normalean, Eusle gelako ikasleak haien erreferentzia geletara joaten direnean, tutoreari edo beste irakasleei zalan-

tzak euskaraz galdetzen dizkiete. Gainerako ikasleei askotan kosta egiten zaie irakasleari euskaraz zuzentzea, baina Eusle gelako ikasleek euskaraz egiten diete tutoreei”.

Lan eta inplikazio handia

Emitza onak lortzen dituzte Eusle gelan, baina irakasleak lan handia egin behar izaten du horretarako:



Marienci Villate Eusle gelako ikasleekin.



Zazpi Landako Eusle gelako ikasleak.

programazioa, materialaren kudeaketa, koordinazioa, astero tutoreekin bilerak... Eta Eusle irakaslea erreferentzia geletan ere sartzen da. Horrez gain, arlo ugari buruzko formazioa jasotzen dute Eusle irakasleek. Hilero izaten dituzte prestakuntzarako saioak. Aurten, adibidez, alfabetatu gabe edo beste hizkuntza batean alfabetatuta iristen diren ikasleei laguntzeko prestakuntza jaso dute. Kulturartekotasuna edota migrazioak dakarren dolua dira, beste batzuen artean, maiz lantzen diren gaiak.

Hilero jasotzen dute formazioa. Batzuetan Arabakoak, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak elkartu egiten dira eta prestakuntza saioa denek batera egiten dute, eta beste batzuetan herrialdeka biltzen dira. Formazio saioetako bilera bakoitza eskola batean egiten dute eta bertako Eusle irakasleak espazio

fisikoa nolako den, zer-nolako baliabideak dituen... azaltzen die beste ikastetxeetako kideei. Formazioa jasotzeaz gain, beraz, esperientzia trukaketa ere egiten dute saio horietan.

Eusle programan egoteak lan handia dakarkio eskolari, ahalegin handia, eta irakasleen inplikazioa eskatzen du. Zazpi Landan tutoreak elkarlanerako prest egoten dira beti, Villatek esan duenez. Elkarlan horretan oinarritzen da hain hazi batean, Eusle egitasmoaren arrakasta.

Eskolako ordutegiak egokitzea ere eskatzen du Eusle egitasmoak. Izan ere, ikasle horiek gutxienez 10 ordu pasatzen dituzte astero Eusle gelan, baina 13 ordu ere izan litezke hainbat kasutan. Goizean goiz eskolara iritsi, Eusle gelara sartu eta ikasleak bertan egoten dira jolasgaraia iritsi bitartean.

“Zoragarria da euskaraz esaldi sinpleak esateko gai direnean umeen aurpegietan poza ikustea. Nolako argia haien begietan!”
Marienci Villate, Eusle gelako irakaslea

“Hizkuntza ez ezagutzea komunikatzeko oztopo izan da hainbatetan. Nahiko ongi moldatzen gara, hala ere, ikasle etorri berriaren hizkuntza dakiten ikasleen laguntza izaten baitugu”
Marienci Villate, Eusle gelako irakaslea

rentzia gelako tutoreak oso kontzientziatuta daude Zazpi Landan, eta badakite zer-nolako metodologia erabili behar duten. Ikasleek ez dute euskara menderatzen, baina, normalean, edukiak menderatzen dituzte eta, kasu askotan, hizkuntza bat baino gehiago ezagutzen dituzte. Familia hizkuntza indartsua izatea garrantzitsua da, horren gainean eraikiko baitituzte gainerako hizkuntzak, eta hizkuntzen arteko maileguak egitea ere oso lagungarria izaten da, transferentzia ugari egiten dituzte hizkuntza batetik bestera. Villatek jarri du adibidea: “Badira bi ahizpa iritsi zirenean amazig hizkuntza soilik zekitenak eta orain euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez hitz egiten dute”.

Euskara ikasteaz gain, emozionalki babes handia eskaintzen die Eusle gelak ikasle etorri berriei. Egoera gogorrek bizi izandakoak izaten

dira zenbait ikasle: gudak, egoera bortitzak, familiaren zati bat euren jatorrizko herrialdean utzita datoz asko... Horrek guztiak eragina du umeengan eta programaren helburretako bat da, baita ere, hori guztia kudeatzea. Zentzu horretan, Eusle irakaslea erreferentzia garrantzitsua izaten da ikasle horientzat. Eta, ikasleen arteko elkarlana azpimarratzen du Villatek. Denak egoera beretsutik pasa direnez, gelan enpatia handia egoten da. Ikasleak irakasle bihurtzen dira sarritan eta oso aberasgarria izaten da.

Ingurua ezagutzeari ere garrantzi handia ematen diote eta Zorroztza ezagutzeko jarduerak egiten dituzte Zazpi Landako Eusle gelako ikasleek: “Zorroztza ezagutzen ari dira, auzoko espazioak, eskaintzen dituen aukerak... Eta horrek ere asko laguntzen die”, dio Villatek.

Villate pozik dago Eusle gelan

Eusle gelako eta erreferentzia gelako lana uztartuz

Gainerako denbora gela arruntean pasatzen dute ikasleek. Hori dela eta, oso garrantzitsua da Eusle gelako eta erreferentzia gelako jarduna uztartzea. Eta, horretarako, Eusle irakasleak eta gela bakoitzeko tutoreak egiten dituzten bilerez gain, ikasle enbaxadoreak izendatzen dituzte etorri berriei laguntzeko: “Erreferentzia gelan enbaxadore funtzioa betetzen duen ikaskidea izaten dute ikasle etorri berriek. Hasieran elkarrekin egoten dira etorri berria bakarrik egon ez dadin, eta enbaxadoreak behar duen horretan laguntzen dio. Gelan aukeratzen dute enbaxadorea baina, jakina, etorri berriaren hizkuntza menderatzen duen norbait izatea komeni da”, dio Villatek.

Oso garrantzitsua da Eusle gelara joaten diren ikasleei euren erreferentzia geletan ere laguntza eskaintzea. Villate: “Euskarri bisuala behar dute beti, eta esaldi sinpleak erabiltzea. Euren euskara maila kontuan hartuta, ikasle horiei gutxienez eskatzen diete”. Errefe-



Eusle egitasmoan parte hartzeko baldintzak

Ikasleek LHko 4., 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. eta 2. mailetan har dezakete parte Eusle egitasmoan. Euskal Herrira iritsi eta bi urteko epea dute Euslen parte hartzen hasteko, eta baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek lekua ziurtatua izaten dute. Bi urteko programa da eta hainbat kasutan, hirugarren ikasturtean ere abendura bitartean izaten dira ikasleak Eusle gelan.

Eskolan Eusle programa abian jartzeko ikasle kopuru jakin bat egon behar da eta ondoren klaustroak onartu behar du, gela horretan aritzeko irakasle bat bideratu eta aukeratu behar baita. Bete beharreko baldintza da irakasle horrek plaza finkoa izatea, taldeak egonkortasuna izan dezan.

Eusle gelak 6-12 ikasle arteko ratioa du, berez, eta 13ra iritsiz gero, bi talde osatzeko aukera dago, baina batzuetan zaila izaten da gela bikoiztea, zeregin horretan beste irakasle bat jarri behar delako.

Datorren ikasturtean aldaketak egongo dira: eskola batzuek jada ez dituzte baldintzak beteko eta eskola berri batzuk programan sartuko dira. Programa dinamikoa da Eusle, eta momentuan da goen beharrari erantzuten dio.



Eusle programaren baitan Lehen Hezkuntzarako sortutako proiektuak, ikuspegi komunikatiboan oinarrituak.

egiten duten lanarekin eta ikasleen garapenarekin, baina zailtasunik ere topatu du bidean: “Hizkuntza ez ezagutzea komunikatzeko oztopo izan da hainbatetan. Nahiko ongi moldatzen gara, hala ere, ikasle etorri berriaren hizkuntza dakiten

ikasleen laguntza izaten baitugu”. Bigarren ikasturtez ari dira gauzatzen Eusle programa Zazpi Landa. Hainbat ikaslearekin prozesu osoa egin dute jada eta ikasleengan bilakaera handia ikusi dutela azaldu du Villatek: “Jarioan eta alderdi

guztietan nabaritzen zaie. Badakite zer egin behar duten, errutina nola lantzen ditugun... Oso autonomoak dira eta ekintza guztietan parte hartzen dute... Oso motibatuta daude, ahalegin handia egiten dute. Ezin dut gehiago eskatu”.

ESPERIENTZIAK II

AUTOBUS BATEN GARRANTZIAZ

Etxepare lizeokoek jaurtiko dute Nafarroa Oinez guneko suziria San Ferminetan

Sarri oharkabeen pasatzen da keinu ttipietatik abiatuz zer bide egin daitekeen. Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleek Nafarroa Oinez jaialdiarekin duten lotura emeki-emeki indartuz doa eta San Ferminetan suziria botatzeko gonbidapena jaso dute. Festa, aldarria eta harremanak muinean dituen bizipenaren testigantza dakarte 'Autobus baten garrantziaz' idatzian.

Badira urte batzuk Etxepare lizeotik Nafarroa Oinezera autobusa antolatzen hasi ginela. Euskaratik abiatuz lurraldetasuna eta herri kultura izan ditugu ardatz lizeoan, bai gela barruan eta baita gelaz kanpo antolatzeko ditugun ekimenetan ere.

Azken hamarkadetan euskararen eta ikastolen alde antolatu egunetara emeki-emeki era kolektiboan (autobusean) joateari utzi diogu. Bakoitza bere autoarekin, bere familiarekin edo lagun taldearekin doa. Eta lizeoko adinean dauden gazteek utzi egiten diote parte hartzeari, 17 urterekin gurasoekin nahi ez, eta lagunekin nola joan ez dutelako.

Gogoeta honek lizeotik Nafarroa Oinezera autobusa antolatzera eraman gintuen, eta fite oharu ere era kolektiboan joateak on egiten zigula. Joan-jinak autobusean kantuz egin ditugu Altsasura, Tuterara... COVID-19aren krisitik ateratzen ari ginela Lizarrako Oinezera joan ginen. Jende metaketak ekiditeko bi egunez antolatu zen, eta hor beste urrats bat egin genuen. Lizarra ikastolako lagunei proposatu genien lizeotarrek

bi egun horietan parte hartze aktiboa izatea; musika, dantza, eta nola ez, Baxoa Euskaraz pasatzearen aldarria eraman nahi genituela. Emaizta ezin hobea izan zen, lizeoko gazteek Lizarrako gazteekin hartu-emanak eraikitzeke balio izan zuen eta autobusa antolatzeak zituen onurei beste bat gehitu genion, azterketak euskaraz pasatzearen aldarriari Hego Euskal Herrian ere ikusgarritasuna ematea. Horrez gain, "misio" horrekin joateak aitzin antolaketa bat suposatzen duenez, gure artekoak sendotzeko ere balio du.

Iaz Tafallako Oineza ohiko formatura itzuli bazen ere, emaitzak ikusirik, larunbatetik joatea aipatu genien Garces de los Fayos ikastolako lagunei. Berriz ere Lizarrako magia sortu eta gure giro eta aldarria hedatu genituen Tafallako karriketan zehar, bertakoen eta gure plazerarendako. Gainera, Tafallan bertan egin genuen lehen lotura 2023ko Oineza antolatzeko ardura duen Etxarri-Aranazko Andra Mari ikastolako lagunekin.

Ekainaren erdian telefono kolpe bat izan genuen lizeoan. Oinezeko

antolatzaileek uztailearen 6an San Ferminetan antolatzen duten Oinez guneko suziria guk jaurtitzeko gomita egin ziguten, azken urte hauetan egindako ekarpena eskertzeko eta Baxoa Euskaraz aldarria plazaratzeko asmoz. Pozez eta ilusioz hartu dugu gomita hau, eta ikasle, irakasle, langile eta guraso talde bat gerturatuko gara bertara. Bide batez, Iruñean egun berezi horretan dauden euskaltzaleak bertara joatera gomitatzen ditugu.

Sarritan entzuten dugu gero eta atomizatuago dagoen gizarte batean bizi garela; bada, urteak dira autobus bat antolatzeak ezagutzak, aldarri baten hedapena eta, sustut, sinergiak ekarri ohi dizkigula. Iduriz garrantzi handirik ez zuen jestu batek bidea egin du. Egund Nafarroa Oinez hitzordu garrantzitsu bat bilakatu da lizeoko ikasleentzat. Hau da guk hautatutako bidea.

Etxepare lizeoko Nahia Arburua (ikaslea), Iker Altuna (irakaslea), Mirentxu Doyhenard (lehendakaria), Iban Thicoipe (zuzendaria) eta Pello Aranzabal (langilea).

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.

EKARPENAK I

HEZKUNTZA TESTUINGURUEN DISEINUA XXI. MENDEAN

Ikaskuntza espazioak ikuspuntu kritikotik diseinatuz

Leire Garmendiak Industria Diseinu eta Produktu Garapenerako Ingeniaritza ikasi zuen Mondragon Unibertsitatean. Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterrean, berriz, Mondragon Goi Eskola Politeknikoko eraikinen eta gelen hobekuntza estetikoaren eta funtzionalaren proposamena gauzatu zuen. Ikaskuntza espazioek gizartea hobetzeko duten garrantzia azpimarratu du Garmendiak.

Hezkuntza gizartearen oinarrietako bat izanik, gizartea bera apustu handia egiten ari da azken urteetan ikasleentzat aproposena den proposamena gauzatzeko. Hobekuntza gehienak metodologietan oinarritzen dira, eta, egia esan, hori ezinbestekoa dela iruditzen zait, baina Industria Diseinuko eta Produktu Garapenerako Ingeniaritzako azken urteko Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiteko hezkuntzari buruzko informazioa topatu behar izan nuenean, ikuspuntua aldatu zitzaidan.

Nire eginbeharra Mondragon Goi Eskola Politeknikoko eraikuntzen hobekuntza estetikoa eta funtzionala proposatzea izan zen. Hori aurrera eramateko, informazio bilketa egin behar izan nuen, eta hau izan zen ateratako ondorio nagusia: hezkuntzan gertatzen ari diren aldaketa



**LEIRE GARMENDIA
MUJICA**
Bigarren Hezkuntzako irakaslea

gehienak metodologia berritzaileetan oinarritzen direla. Baina inoiz egin al dugu aldaketa horiek espazio fisikoan duten eraginaren eta espazioek hezkuntzan duten eraginaren gaineko hausnarketarik?

Duela hamarkada batzuetatik hona, eskolako espazioen gaineko azterketa batzuk egin dira, nahiz eta asko ez izan. Gainera, aplikazio praktikoko gutxi topatu daitezke. Hezkuntza metodologiaren egoera, ordea, bestelakoa da: asko aztertu dira, eta horiei buruzko aplikazio praktikoko gutxi topatu daitezke.

Metodologia berrietan, ikaslea da protagonista, baina ikasgelako antolaketa aztertuz gero, hori erritmo berean eguneratu ez denez, protagonista irakaslea dela ikus daiteke. Une askotan, espazio fisikoa hezkuntza prozesurako oztopo ere bihurtzen da. Hori kontuan izanik, ikaskuntza

aktiboaz ari bagara, espazio aktiboak izatea beharrezkoa dela iruditzen zait. Izan ere, eredu pedagogiko berrietan ikaskuntza prozesuaren erdigunea irakaslea izatetik ikaslea izatera pasatu den honetan, zentzua galtzen du mahaiak arbelera begira dituzten espazio tradizionalak izateak. Horregatik, ezinbestekoa da balio anitzeko espazioak, espazio malguak eta berritzaileak izatea. Hori lortu ezean, ikasleak moldatu behar du espaziora, eta egokiena espazioa egoerara moldatzea izango litzateke.

Alfredo Hernando Calvo psikologo eta aztertzaileak hirugarren irakasle gisa definitzen du espazioa, irakaslearen beraren eta ikaskideen atzetik. Espazioak ez baitira edukiontzi hutak eta neutroak, igortzen dituzten mezuen eta edukien bitartez harreman mota batzuk bultzatzen dituzte. Beraz, espazioa beti hezitzailea dela esan daiteke, gaur egun ikuspuntu hori izatea kosta egiten zaigun arren.

Ikaskuntza espazioak aztertzeko garaian, ezinbestekoa da ikaskuntza inguruen diseinuan aditua den Rosan Boschek esaten duena aztertzea. Hark azpimarratzen duen moduan, ikasteko testuinguruek motibagarriak izan behar dute. Horien diseinua era estrategikoan landuz gero, ikasleen konpromisoa eta motibazioa garatzeaz gain, sormena, pentsamendu sortzailea eta lankidetzaren ere aberasten baitira.

Rosan Bosch Studio, garbi dute ikasleek gehiago parte hartu behar dutela beren ikaskuntzan, beti ere autonomiaren eta mugen arteko oreka egokia dagoela. Autonomia horren parte da ikasleek euren ikaskuntza eremuaren diseinuan parte hartzea. Irakasleak zein ikasleak eskola espazioaren erabiltzaile nagusiak dira, eta, beraz, ezinbestekoa da horren diseinuan bi kolektibo horien hitza kontuan izatea.

Nire esperientzia pertsonaletik abiatuta (2017. urtean amaitu nuen Batxilergoa) eta azken urtean irakasle lanetan ezagutu ditudan eskolak ikusita, ohartu naiz ikasgelako espazioek gaur egun ere gune zurrunk izaten dituztela. Egia da ikastetxe batzuetan aldaketak egiten



hasi direla, baina espazio falta izan ohi da aldaketa horien jatorria, eta ez espazioak egokitzeko beharra. Horren adibide da aldaketak egiteko garaian ez dela ikasleen iritzia kontuan izaten.

Unitate didaktikoaren diseinua

Heziketa egokia izan dadin, espazioak eta metodologiak bide beretik joan behar dute, bietako bat atzean geldituz gero, oso zaila baita ikasleek merezi duten heziketa jasotzea. Horregatik, ikaskuntza espazioaren antolamenduak eta plangintzak leku nabarmena izan beharko lukete irakasleen zein ikasleen prestakuntzan, espazioa hezkuntza helburuak lortzen laguntzen digun faktore didaktikoa baita.

Hori kontuan izanik, proposa iruditu zitzaidan unitate didaktiko bat sortzea, Euskal Herriko Unibertsitatean irakasleen prestakuntzarako titulua lortzeko Master Amaierako Lana egiten ari diren ikasleek euren ikasgelako espazioa diseinatzeko unitate didaktiko bat, alegia.

Unitate didaktiko orotan egiten den moduan, testuinguru egoera definitu nuen:

Azken ikasturteetan, aldaketa handiak egiten ari dira metodologiari dagokionez. Aldaketa horien artean esanguratsuenak teoriar oinarrituta-

ko eskoletatik talde lanean oinarritutako eskoletara pasatzea eta proiektuen bidez lan egitea dira, besteak beste. Baina lanketa horiek egiteko garaian, ikasleek arazo garrantzitsu

Ikaskuntza aktiboaz ari bagara, espazio aktiboak izatea beharrezkoa dela iruditzen zait. Izan ere, eredu pedagogiko berrietan ikaskuntza prozesuaren erdigune irakaslea izatetik ikaslea izatera pasatu den honetan, zentzua galtzen du mahaiak arbelera begira dituzten espazio tradizionalak izateak.

Hezkuntza espazioaren antolamenduak eta plangintzak leku nabarmena izan beharko lukete irakasleen zein ikasleen prestakuntzan, espazioa hezkuntza helburuak lortzen laguntzen digun faktore didaktikoa baita.

batekin egiten dute topo: ikasgelak ez daude talde lanerako behar den moduan antolatuta eta egokituta, eta espazio horiek berrantolatu behar izaten dituzte maiz, mahaiaik elkar-tuz, zenbait altzari baztertuz...

Azken batean, ikasleek aukera handirik eskaintzen ez duen espazio txiki horretara egokitu behar dute, eta horren kexu dira.

Ikasleek proiektua garatu dezaten, jarraibide batzuk ematea ezinbestekoa da. Horregatik, ikas-egoera diseinatzeko garaian, ezinbestekoa da ikasleentzako agertoki erakargarri eta erreal bat definitzea. Proiektu motibagarria garatuz gero, ikasleek era aberasgarriagoan barneratuko dituzte edukiak eta jakintzak, eta, orobat, denbora luzeagoan atxikiko dituzte. Egindako proposamenaren kasuan, honako ikas-egoera hau planteatu zaie:

Ikastetxean egiten ari diren metodologia aldaketa guztiek espazioan aldaketak egitea eskatzen dute;

baina ikastetxeko egoera ekonomiko delako eta, epe laburrera begira ezingo da azpiegitura lan handirik egin. Hori kontuan izanik, ikasgelan aldaketak egiteko aukera eskaini du zuzendariak, eta 1.000 euroko aurrekontua hitzeman du horretarako.

Arazo horren aurrean ikasleak hobeto kokatzeko eta haien interesa pizteko, galdera batzuk egingo zaizkie:

- Zer irudituko litzaizueke ikasgela lan egiteko gune erakargarri eta eroso bihurtuko bagenu?

- Prest egongo al zinatekete espazio hori guk geuk sortzeko?

- Egin beharreko aldaketak 1.000 euroko aurrekontuarekin egiteko gai izango al ginateke?

Egindako proposamenaren jomuga, ikasleak erdigunean kokatuta, haien hezkuntzarako proposena izango den espazioa eratzea da, taldearen behar espezifikoetara egokituz betiere.

Definitutako helburuak lortzeko eta ikasketa esanguratsua izateko, behar-beharrezkoa da gaur egun oraindik ere pisu handia duen eredu tradizionaletik metodologia aktiboetarako jauzia egitea.

Diseinu berria proposatzeko, ikasleek espazioak hezkuntzan duen garrantziaz jabetu beharko dute, hezkuntza metodologia desberdina aztertu beharko dituzte, bai eta horien beharrak identifikatu ere. Espazioen antolaketaz gain, hainbat koloretan, materialetan eta testuratan jantzi beharko dute.

Proposatutako unitate didaktikoa lau fase nagusitan banatzen da:

1. Hasierako fasea. Ikasleei agertokia eta proiektuaren nondik norakoa azaltzeaz gain, prozesu osoan erabiliko den metodologia eta ebaluazioaren nondik norakoak azalduko zaizkie.

2. Garapen fasea. Ikasleek hasiera batean beharko dituzten edukiak barneratzea izango da fase honen helburua. Bai eta egungo gela 3D aplikazio baten bidez irudikatzea ere.

3. Aplikazio fasea. Aurreko fasean beharrezko ezagutzak bereganatu dituztenez, proposamenari forma ematen hasteko unea izango da hau.

4. Orokortze eta transferentzia fasea. Proiektua ebaluatu, hobekuntza proposamenak egin eta lana aurkeztu beharko dute. Proiektuarekin amaitzeko, denen artean adostasuna lortu eta proposamen bakarrarekin gelditu beharko dute.

Planteatutako jarduera horiek banaka, binaka edo taldeka egiteko diseinatu dira, hainbat eratar lanean aritzeko eta haien gaitasunak garatzeko asmoz. Proiektu nagusia taldekako lana izanik, garrantzitsua izango da ikasleek elkarrekiko dependentzia izatea, nahiz eta jarduera batzuk bakarka egin behar izango dituzten.

Eskolako espazioak koherentziaz antolatzea

Helburua emaitza hoberenera iristea izanik, ikasgelako eremuan zentratzea erabaki nuen arren, kontuan izan behar da hezkuntza eremuez hitz egitean ezin dugula ikasgeletan soilik zentratu, eskolako edozein gune izan baitaiteke heziketarako gune, eta beraz, koherentziaz antolatu beharko dira horiek guztiak. Horregatik, hezkuntza ahalik eta aproposena, aberasgarriena eta inklusiboa izateko, garrantzitsua da eskolako espazio guztiak aztertzea eta ebaluatzea.

Jarraian, adibide gisa, GRALerako egindako proposamena ikus daiteke (ikus hurrengo orrialdea). Bi irudiek espazio bera irudikatzen dute. Lehen irudian, ikasgela une hartan zegoen bezala ikus daiteke; bigarrenean ordea, argi naturala dago, espazioak malguak dira, eta ikaslea ikasgelako protagonista izatea bilatu da. Bi irudietan, ikasgela puntu beretik eta perspektiba berarekin ikusten da, aldaketa horiekin beste gela baten itxura hartzen duen arren.

Amaitzeko, proposamen honetan aldaketa handia egin nuen arren, eskola goitik behera aldatzearen beharra alde batera utzi nahi nuke, kasu askotan ez baita beharrezkoa. Eskolako espazio bakoitzak eskaintzen duena aztertzea eta horri etekina ateratzea da garrantzitsuena. Irakasleak ez luke konformatu behar ematen zaion ingurunearekin, espazioaren egiturak eta hango elemen-



Garmendiak espazioa egokitzeko egindako proposamena. Goiko irudian egungo egoera, eta, behekoan, aldaketa eginda nola geratuko litzatekeen.

tuek hezitzaileak ikasleari helarazi nahi dionarekin koherenteak edo kontraesankorrak izan daitezkeen mezuak helarazten baitizkiote.

Hori kontuan izanik, espazio bakoitzak eskaintzen duena aztertzea eta horri etekina ateratzea da diseinatu nuen unitate didaktikoaren

helburua. Horri esker, proposamen hori egoera, baldintza, ikastetxe eta ikasle guztientzat molda daiteke. Izan ere, ikasgelako espazioaren diseinua ikasleek egingo dute. Beraz, ikasgelarako proposatzen dituzten hobekuntzak, txikiak izanagatik ere, etorkizunean oso lagungarriak izango zaizkie.

Eskolako edozein gune izan liteke heziketarako gune.

EKARPENAK II

HEZKUNTZA AKORDIOA

Euskarak eta kulturak Hezkuntza Legea zeharka dezaten eskatute kultur eragileek

EAEko Hezkuntza Lege Proiektuari ekarpenak egin dizkiete maiatzaren 23az geroztik hainbat eragilek. Ekainaren 12an Sormenean Hezi Kulturaren Bizi kultur transmisio lantaldeak egin bere ekarpenak zituen. Besteak beste, egoera diglosikoa aintzat hartzea, kultura eskubideak bermatzea euskal kulturaren gaineko ikuspegi anbiguoak saihestea eskatu zuten.

Sormenean Hezi Kulturaren Bizi kultur transmisio lantaldeak Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen aurrean ekarpenak egin zituen ekainaren 12an. Aho-tseneako Gotzon Barandiaranek eta Lanarteako Amagoia Gurrutxagak egin zuten hitzartzea, kultur eragile askoren izenean. Jada iazko abenduan adierazi zuten Hezkuntza Lege aurreproiektuarekiko kezka, eta orain, “lege horren behin betiko abiapuntua ezagututa” kezka ez dela “inolaz ere gutxitu” adierazi zuten. Bereiziki Arabarako, Bizkaia-rako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Lege- proiektuaren zirriborroaren hainbat alderdik kezka handia eragin diete:

- “Hezkuntza Legearen zirriborroak ez du kokatzen kultur hezkuntza edota hezkuntza artistikoa funtsezko adartzat eta jakingaitzat”.
- “Hezkuntza Legearen zirriborroan, testuinguru eta kokapen orokorra egiten denean,



Gotzon Barandiaran eta Amagoia Gurrutxaga, Sormenean Hezi Kulturaren Bizi kultur transmisio lantaldearen izenean, Eusko Legebiltzarrean.

- ez dago euskararen eta bere kulturaren egoera diglosikoaren inguruko aipurik”.
- “Helburuetan ez dago euskal kulturari espresuki uztartzen zaionik”.
- “Ez dago euskal kulturaren transmisioa eta ezagutza bermatzeko erakunde, organo edo funtzio iraunkorrik”.

Euren ikuspuntu kritikoa azaltzeko hainbat arrazoi eman zituzten Aho-tseneako eta Lanarteako kideek. Eusko Legebiltzarrean eztabaidatuko den Hezkuntza Legeak “egoera diglosikoa ezkututzen duela”, irizten diote. Barandiaranek adierazi zuenez, “orain arteko Euskal Hezkuntza Sistemaren lorpenen irakurketa egitean, euskalduntzeari



Iazko ekainean egin zuten kultur eragileek lehen agerraldi publikoa, Arabarako, Bizkaiarako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Legeak euskal kultura aitortzearen eskatzeko.

dagokionez, errealitatetik oso urrun dagoen argazki bat” erakusten du lege proiektuak: “Azken ikerketa zientifikoek erakusten dute euskaldunok diglosia betean bizi garela, eta hezkuntzak gabezia handiak dituela ikasketa prozesuaren amaieran euskaldun hiztun osoak eta aktiboak izateko. Are gehiago, argazki desitxuratu hori erabiltzen du abiapuntu gisa lege proiektu honek. Ondorioz, onartzen ez duen egoera diglosikoa gainditzeko neurririk ez du proposatzen. Diglosia egon, baina, badago. Lege honen helburuetako bat elebitasun orekatua lortzea bada, abiapuntua gaur egungo egoera diglosikoak izan behar du, eta legean bertan jaso beharko lirateke trantsizio-garai horretarako tresnak, baliabideak, urratsak eta ebaluazio-mekanismoak”.

Euskal kulturaren gaineko ikuspegi anbigua saihestea

Kultur eragile ugari babestuta eraman zuten testuak euskarak eta kulturak zeharkaturiko lege bat aldarrikatzen du: “Kultur hezkuntzarik gabe eta euskal kulturaren trebatu gabe, hizkuntz garapenik ez dago. Kulturari gabe, pertsonaren garapen osorik ez dago. Kultura zientifikoaz eta teknologikoaz sarri hitz egiten da testuan, eta kultur sormenari saiheska begiratzen zaio, ez da

hezkuntza prozesuaren erdigunean kokatzen, eta kultur hezkuntza funtsezko jarduna da herritarren eta komunitatearen garapenerako”.

Euskararen kulturgintzaren transmisioak Hezkuntza Legeak dituen bikaintasun helburuak kontuan izanik, kulturak ekarpen handiak egin ditzakeela nabarmendu zuen Gurrutxagak, baina pentsamendu kritikoa, kalitatezko hezkuntza, edo pertsonaren garapen integrala lortzeko, Hezkuntza Legeak “kualifikazio handiko hezitzaileak formatzeko plan bat” iragarri beharko lukeela uste dute: “Plan bat diseinatu behar da irakasleak hizkuntza, kultura eta metodologiaren alorrean gaitzeko, irakasle guztiak euskal kulturaren eragile bihurtzeko”.

Hizkuntza- eta kultura-eskubidea aitortzeko eskatzen diote legeari, elkarbizitzaren mesedetan, izan ere, kultur transmisioko lantaldearen iritiz, euskarazko murgiltze eredua elkarbizitzarako eta kohesiorako tresna ezinbestekoa da: “Elkarbizitza eta kohesio sozialari hainbatetan egiten zaio erreferentzia testuan zehar, baina horiek aipatzean sekula ez zaio erreferentzia egiten hizkuntza- eta kultura-eskubideen urraketari. Ez dago ez gizarte kohesiorik, ez elkarbizitzarik, ez inklusiorik, ez berdintasunik, ez demokraziarik lortzerik euskaldunon hizkuntza

eskubideak bermatzen ez badira. Lege honek euskara hizkuntza gutxitua dela onartzen badu, oinarritzko printzipio horrek lege osoa zeharkatu behar du”.

Euskal kulturaren inguruko ikuspegi anbigua ikusten diote legeari, eta lausotasun hori saihesteko beharra aldarrikatu zuten Lanarteako eta Ahotseneako ordezkariak: “Lege proiektuak euskara hizkuntza gutxitua dela onartzen du, eta, aldi berean, euskal kulturak bi hizkuntza ofizial dituela. Zalantza baina da hori. Euskal kulturak euskara du hizkuntza bakar. Kulturartekotasuna sarritan aipatzen da, gurean dauden kulturak maila eta egoera berean baleude bezala, baina ez da hala. Premisa oker horrek zaurgarrien dagoen kulturari egiten dio kalte, nagusi denari mesede”.

Azkenik, kultur transmisioko lantaldearen iritiz, lege proiektuak aukera eman behar die ikasleei “euskarazko kulturgintzako eragile izateko modu profesionalean, hala nahi badute, sortzaile gisa kultur adierazpide guztietan zein kulturgintzako gainerako lanetan, ez soilik goi mailako ikasketetan, ez bada ikasketa prozesu osoan zehar”.

600 sinaduratik gora

Ahotseneako eta Lanarteako ordezkariak Hezkuntza Legearen aurreproiektuaren inguruan partekatu zuten irakurketa kritikoak 600dik gora kulturgileren, irakasleen eta herritarren babesa dauka, eta kultur transmisioko lantaldea dozenatik gora kultur eta hezkuntza talde osatzen dute, hala nola, Ahotse-neak, Aiaraldea Ekintzen Faktoriak, Bertsozale Elkartek, Dantzaneak, Elkar Fundazioak, Euskal Editoreen Elkartek (EE), Euskal Herriko Antzerkizale Elkartek (EHAZE), Euskal Idazleen Elkartek (EIE), Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartek (EIZIE), Euskal Herriko Trikitixa elkartek, Euskal Wikilarien Kultur Elkartek (EWKE), Euskaltzaileen Topaguneak, EuskalPENek, Galtzagorri Elkartek, **Hik Hasik**, Ibaiak, Jaki-nek, Lanarteak, Muskarik, Musika Bulegoak eta Xabiroik.

AHALDUNTZE ESKOLA

NATURTZAINDIA

Saguzarrek gu zaintzen gaituzte

Galtzeko arriskuan daude saguzarren espezie asko, gizakion esku-hartzeagatik. Naturtzaindiako kideen helburuetako bat saguzarrei buruzko pedagogia egitea da, fama txarreko animalia horiek ekosistemaren zaintzan duten garrantzia ikusarazteko. Dibulgazioan dihardu Naiara Corcuera ingurumen hezitzaileak.

Euskal Herrian bizi diren 27 saguzar espezieei buruzko lehenbiziko liburuxka argitaratu du berriki Naturtzaindiak (webgunean eskura daiteke bertsio digitala: www.naturtzaindia.com). Horietako asko saguzar espezie mehatxatuen zerrenda gorrian daude, euren babeslekuak suntsitu baititu gizakiak. Kontzientzia piztu nahi du Naiara Corcuera.

Zergatik ikasi saguzarrei buruz?
Zergatik jakin beharko genuke gehiago saguzarrei buruz?

Hasteko, oso talde ezezaguna delako. Munduan 1.400 saguzar espezie daude, ugaztunen artean espezie aniztasun handiena duen bigarren taldea da. Baina era berean, espezie honen populazio egoeraz oso jakintza mugatua daukagu, eta horien ikerketan eta kontserbazioan asko dago sakontzeko oraindik ere. Euskal Herrian bertan, 27 espezie ditugu. Saguzarrek funtzio garrantzitsua daukate ekosistemaren barruan, eta hori oso garrantzitsua da ekosistemaren parte garen guztiontzat: intsektuen populazioa kontrolatzen dute. Horregatik eta beste arrazoi askorengatik, garrantzitsua da espezie honen kontser-

bazioa. Bioaniztasunaren beste elementuekin egiten dugun moduan —txoriak, loreak, landareak eta abar—, komeni da saguzarren alde lan egitea. Saguzar espezie asko desagertzeko arriskuan daude, batez ere giza jardueren ondorioz. Beraz, horri buelta emateko ardura daukagu.

Ekosistema beraren parte gara gu eta saguzarrak, baina jabetzen al gara?

Gu gaur egun hirietan bizi gara, baina ekosistemetatik elikatzen gara: janaria, ura eta aire garbia ekosistemetatik hartzen ditugu, esate baterako. Ekosistema osasuntsuak behar ditugu gu geu ere osasuntsu egoteko. Ekosistema horietan parte hartzen duten bioaniztasun guztiek —izan lurzoruan dagoen guztiak, landareek, animaliek...— ekosistema horietako orekari eusten laguntzen dute, eta guk behar-beharrezko dugu oreka





Naiara Corcuera, Naturtzaindiak argitaratu berri duen *Euskal Herriko saguzarren gida* eskuetan duela.

hori sano egoteko. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da ekosistema horiek aberatsak izatea. Zenbat eta bioaniztasun handiagoa, hobe; zenbat eta espezie gehiago, hobe; eta genetikoki desberdinagoak baldin badira, are hobeto... Modu horretan, erresilienteagoak izango gara, eta indartsuago egongo gara kanpotik etor daitezkeen mehatxuen aurrean, hala nola, gure uztei eta basoei eragiten dieten plagen eta gaixotasunen aurrean.

Saguzarrek fama txarra daukate. Pedagogia egin behar da saguzarrei buruzko ikuskera aldatzeko?

Fama txarra dute; hasteko, gauez ibiltzen direlako eta oso ezezagunak direlako, filmak ere egin dira... Baina jatorrak ere izan daitezke, enarak bezala. Oro har, biofobia oso garatuta daukagu, oso deskonektatuta baikaude naturatik, eta edozein animalia arriskutsua eta nazkagarria iruditzen zaigu. Nik hori ikusten dut ingurumen hezkuntzan. Ume batzuk, ordea, oraindik kutsatu barik daudenez, naturara gerturatzeke eta ikertzeko sena bizirik daukate, naturarekiko sinpatia mantentzen dute, eta oso erraz pizten zaie naturarekiko eta, bereziki, saguzarrekiko interesa.

Zer-nolako baliabideak dituzue saguzarren garrantziaren pedagogia egiteko?

Gaueko ibilaldiak egiten ditugu, hizketaldi txiki batekin eta erakusketarekin osatzen ditugunak. Erreka inguruko ibilaldi gidatuan, adibidez, eta detektagailu batzuk eramaten ditugu; aplikazio baten bitartez, ultrasoinuak entzun ditzakegu, momentuan gure inguruan zein saguzar espezie dabilen hegan detektatzeko. Orain, gida bat ateradugu. Ilustrazioen bidez, Euskal Herrian dauzkagun 27 espeziaren berri ematen da, bakoitzaren ezauzgarriak eta bereizgarriak jasoz. Euskal Herrian egindako lehendabiziko liburuxka da.

Zergatik daude mehatxupean? Zer ari gara gizakiok egiten saguzarrek galtzeko?

Batez ere haien habitataren degradazioagatik eta suntsiketagatik daude saguzarrek galtzeko arriskuan. Basoak soiltzea, basoetan monolaborantza intentsiboak jartzea, edo erreka bazterretako ekosistemak eraldatzea dira, era berean, saguzarrek desagertzeko arrazoi nagusiak. Laborantza intentsiboak intsektizidak erabiltzea dakar, eta, horren ondorioz, intsek-

tuen populazioa jaitea eta beraz, saguzarrek galtzea. Horiez gain, saguzarren babeslekuetan eragiten ditugun eragozpenak, edota parke eolikoetan eta errepideetan gertatzen diren istripuak aipatuko nituzke.

Zuek zer mezu helarazi nahi diozue jendeari?

Non bizi garen eta gure ekosistema zerk osatzen duen jakin behar dugu. Azpimarratu behar da garrantzitsua dela habitatako zaintzea, bai guregatik eta baita beste espezie guztiengatik ere; daukaguna kontserbatu egin behar dugu, eta hondatu duguna berreskuratu egin behar dugu. Ezin dugu utzi desagertzen gure inguruan bizi den espezie bat; zaindu egin behar dugu, lehendabizi espezie horregatik, baina baita gure ondorengoek ere haren onurez goza dezaten. Ezin gara gure inguruko basanialiak nola desagertzen ari diren begira geratu, ezer gertatuko ez balitz bezala, aurreikusi gabeko ondorioak izan baititzake horrek: eskaintzen dizkiguten zerbitzuak desagertzen baldin badira (intsektuen populazioa kontrolatzea), adibidez, gure osasunean eragin zuzena izango du, bai eta gure ongizatean ere.

GALDEIDAZU

ZER DA HIZKUNTZA-IDEOLOGIA ETA ZERGATIK DA HIZKUNTZA-IDEOLOGIAZ HITZ EGITEKO GARAIA?

Hizkuntza-ideologiak pertsonen hizkuntzei, hizkerari edo horien erabilerei buruz dituzten ideiak eta egiten dituzten balorazioak dira. Munduko edozein tokitan ohikoa da hizkuntzaz ideia edo sinismen sorta bat edukitzea: halako hizkuntza zaila dela irudituko zaie batzuei, beste hizkuntza hori ez dela oso erabilgarria interpretatuko dute haiek edo norberaren hizkera ederrena dela sinetsiko dute askok. Baina hizkuntza gutxituak dauden testuinguruetan hausnarketarako, hizkuntzaren inguruko gogoeta kritikorako eta kontrajarriak diren ideietarako aukera handiagoa sortu ohi da.

Azken urteetan nerabeekin aritu izan naiz ikerketa etnografikoak egiten. Hizkuntzaren Antropologiak, Haur eta Nerabezaroaren Antropologiak eta Antropologia Feministak eskaintzen dizkiguten tresnak erabiliz, behaketak, elkarriketak eta eztabaida talde ugari egin ditut eskolaz kanpoko eremu ez-formalean. 11 eta 19 urte bitarteko nerabe askoren hizkuntza-praktikak jasotzeaz gain, hizkuntzei buruz dituzten bizipenak, iritziak eta hausnarketak entzuteko aukera izan dut.



JAIME ALTUNA
Gizarte antropologoa



Gogoeta horietan gazteek zenbait kokapen eta ideia azalarazten dituzte. Saioak¹ (13 urte), adibidez, argi dauka eskolan euskaraz hitz egin behar duela, baina hortik kanpo gaztelaniaz hitz egiten du hala erabakita duelako eta haren gogoe-tan nabari da hizkuntza gutxituaren auzia ez zaiola horren garrantzitsua iruditzen: “Nire ustez euskara bai, inportantea da, baina ez hain inportantea, zeren nire ustez, igual inportanteagoa da gaztelania, zeren euskararekin nik uste dut bakarrik Euskal Herrian... eta ongi dago, Euskal Herrian ongi, baina ateratzen zara eta ez dizu balio beste herri batzuetan”. Herri berean bizi den Garaziri (15 urte), ordea, euskaraz hitz egitearen eta euskararen biziberritzearen aldeko ekimenetan parte hartzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaio: “Gure hizkuntza delako, nire hizkuntza da. Ingeles edo aleman batek bere hizkuntza maite duen bezala, nirea behintzat euskara da. Euskal Herriko hizkuntza euskara da; orduan, garrantzitsua da”.

Garaziren hausnarketekin bat egiten duten hiztun nerabeak topatu ditut ikerketetan. Saioaren gogoetatik gertu daudenak ere bai. Zalantzarik

¹ Erabilitako izen guztiak asmatuak dira ikerketetan parte hartu duten nerabeen anonimotasuna ziurtatzeko.

gabe, nerabe gehienen hausnarketak bi diskurtso horien artean geratzen dira. Euskara hizkuntza gutxitua dela hautematen dute eta euskara biziberritzearen alde ageri dira. Baina ez dirudi hizkuntzen egoera sozialak aparteko interesik, deserosotasunik edo gatazkarik sorrazten dienik. Nerabeen hitzetan ondoriozta daiteke, oro har, egoera linguistiko diglosikoak etengabe bultzatzen dituela nolabaiteko gogoeta egitera edo kokapen ideologiko batera; baina, era berean, ez dut nabaritu lehentasunezko gaia denik elkarrizketatu ditudan nerabeen egunerokotasuneko hausnarketetan.

Hizkuntza-ideologiaren zirkulazioa

Jacqueline Urla antropologoak azpimarratu izan du azken hamarkadetan gazteengan zentratutako hizkuntza politikak eta “euskararen erakundetzeak” ondorioak izan dituela hizkuntza-ideologietan: diskurtso berriak sortu dira, baina horrek ez du aurreko marko diskurtsiboa guztiz ordezkatu. Egun, euskararen eremuan diskurtso zaharrak eta berriak elkarrekin bizi dira eta, zentzu horretan, egokiago dirudi ideologia ezberdinen zirkulazioaz hitz egitea, zeinetan aintzinako ideiak eta berriak nahasten diren, edota ideologia ezberdinen arteko eraginak nabaritzen diren. Hain zuzen ere, hori da nik nerabeekin egindako ikerketetan topatu dudana.

Egungo euskal nerabeak txikitatik askotariko hizkuntza-ideologiez blaitu dira eta, horregatik, ideologia ezberdinen zirkulazioaz hitz egin daitekeela uste dut. Ideologia horietako batzuk hizkuntza gutxitua den euskararen aldeko diskurtsoa zabaltzeko balio dute eta, batez ere, eskolaren bidez euskaraz mintzatzeari gisa aurkeztu duen aldarriak presentzia nabarmena duela ikusi ahal izan dut. Batzuetan, mezu esplizitu horren aurrean, nerabeen nolabaiteko erresistentzia agertzen da. Baina nik jasotako testigantzetan ez da nabari halako aurkakotasunik eskolan euskaraz hitz egitearen arauaren eta hari lotutako

mezuaren aurrean. Badirudi gazteek naturalizatu duten diskurtso ideologikoa dela eta irakasleek euskaraz hitz egiteko eskatzea edo agintzea ulertzen duten zerbait dela. Dena den, agerikoa den jarrera “ulertu eta paso” gisa izenda daiteke. Nerabeak ados daude mezuarekin, baina, era berean, erresistentzia adierazten dute, nahiz eta ez bata (adostasuna) eta ez bestea (erresistentzia) ez diren nabarmenegiak, ez diren indar handiz agertzen diren diskurtsoak. Familian ere euskaraz hitz egitearen aldeko kultur arduren marko ideologikoa ageri da, baina maila apalagoan eta bi esparru horietatik kanpoko aipamenak apenas ageri dira.

Nerabeek aipatzen dituzten “euskararen aldeko” errepresentazio ideologikoak bi motatakoak dira: batetik, hizkuntzaren zaugarritasunari lotutako kontserbazioaren behararekin lotutakoak eta, bestetik, identitateari erreferentzia egiten dieten arrazoibideak. Horiei lotutako karga afektiboa eta ardura kutsua topatu ditut: euskara ahuldutako hizkuntza dela barneratua dute eta euskaraz hitz eginez edo euskara sustatzeko ekimenetan parte hartuz euskal hiztun gisa ardura hori bete beharko luketela aipatzen dute. Alaitzek (13 urte), esaterako, honako hau zioen: “Nik uste dut nola euskara aspaldikoa den eta hori, nik uste dut zaindu egin behar dela. Hain altxor preziatua galtzea pena bat izango zen”. Baina, ez dut nabaritu ardura horrek oso mobilizatzailea izan daitekeen subjektibitatea eraikitzeke nahikoa indarririk duenik.

Bestalde, hizkuntza kontuetan aukera librearen aldeko ideologiak ere presentzia nabarmena duela jaso dut. Hizkuntzen erabilera aukera indibiduala izan behar duela nahiko zabaldua dagoen ideia da eta ohikoa da bakoitzak nahi duen hizkuntza erabiltzeko aukera izan behar duela adieraztea: hizkuntzarena ardura eta erabaki pertsonala da. Ander (12 urte), esaterako, honela mintzo zen: “Bakoitzak nahi duena egingo du”. Marko liberal horrek ere ez du laguntzen euskaratik sortu

Badirudi irakasleek euskaraz hitz egiteko eskatzea edo agintzea ulertzen duten zerbait dela. Dena den, agerikoa den jarrera “ulertu eta paso” gisa izenda daiteke. Nerabeak ados daude mezuarekin, baina, era berean, erresistentzia adierazten dute.

daitezkeen subjektibitateak eraikitzen, gazteen kulturetatik aldenduta eta norbanakoaren eskuetan utzita ahul agertzen baita euskara.

Hizkuntza-ideologiaren gakoak

Hizkuntza-ideologia definizio gisa, Belen Urangak eta Lionel Jolyk honako hau proposatu zuten: “Hiztunak hizkuntzaz dituen sinesmen-multzoak dira, estruktura eta erabilera linguistikoa hautemateko duen modua arrazionalizatzeke edo justifikatzeko”. Baina definizioaz aparte, uste dut garrantzitsua dela azken hiru hamarkadetan hizkuntza-ideologia kontzeptuaren lanketak mahai gainean utzi dituen ideiak argi edukitzea gai horrek duen garrantziaz jabetzeko.

Hasteko, argi dago hizkuntza-ideologia eraikuntza soziala dela, jendartean eta kultura zehatzetan sortzen, barneratzen eta zabaltzen delako. Horrek, ordea, ez du esan nahi komunitate jakin batean erabat partekatua den ideologia bakarra dagoenik eta gizarte batean ideologia-linguistikoak gutxitan dira homogeneoak. Ikusi dugun mo-

Euskal Herrian euskarari buruz asko hitz egin eta eztabaidatu da, baina gutxiago aztertu dira euskararen inguruko diskurtsoak eta horiek sortutako ondorioak. Hizkuntza-ideologiaz mintzatzeko garaia da.

duan, herri bereko nerabeen artean hizkuntzari buruzko diskurtsoak ez dira guztiz homogeneousak eta Garazi, Saioa eta gainerako hiztun gazteen hausnarketetan ezberdintasun adierazgarri batzuk topatzeaz gain, norberaren baitan ere zenbait hizkuntza-ideologia batera ager daitezke.

Bestetik, hizkuntza-ideologiak hizkuntza gainditzen du. Hizkuntza-ideologiak ez dira sortzen eta zabaltzen soilik hizkuntzari buruzko elementuen bidez, testuinguru sozialak eta kulturalak, hizkuntzaren erreferentziazko munduak eragin handia du hizkuntza-ideologietan. Hau da, hiztunen hizkuntza-ideologiak ulertzeko, ezinbestekoa da hizkuntzek euren erreferentziazko kulturetan duten tokia eta rola ulertzea.

Hizkuntza-ideologiek errealitatean eragiteko duten gaitasuna ere azpimarratzeko moduko kontua da. Ideologia askotan hizkuntza elementu abstraktu soil gisa irudikatzen da, neurri batean errealitatean eta praktikan duen boterea eta eragina gutxietsiz. Baina hizkuntza-ideologia balorazio, iritzi, uste eta diskurtsoez harago doa eta errealitatean eragiteko indar handia du. Miren Artetxek idatzi zuen moduan, “ideologiek errealitatea sortu eta birstutu egiten dute eta eragin zuzena dute mundu sozialean, nahiz

eta maiz munduaren deskribapen modura soilik ulertu”.

Hizkuntza-ideologiak askotariko agentziak elkartzen ditu bere baitan. Hitzunaz gain, bere testuinguru hurbila, hizkuntza politika zein hizkuntza plangintzarekin lotutako eragileak, soziolinguistak edota hizkuntzaren gaineko ikerlariak eta abar. Denon agentzia ikus daiteke hizkuntza-ideologiaren aztertutik. Euskal Herriko egungo testuinguruan gazteen hizkuntza-ideologiak atzean askotariko agentziak biltzen direla argi edukitzea garrantzitsua dela uste dut, azken hamarkadetan helduok (hizkuntza eragileak, irakasleak, ikerlariok eta abar) gazteak arazo bilakatu ditugulako eta maiz euren jokabide linguistikoak euskarari buruz dituzten uste edo baloreekin (edo balore ezarekin) lotu izan ditugulako. Baina gazteen hizkuntza-ideologiak ezin dira ulertu azken urte hauetan hiztun gazteei zuzendutako lan ildo, politika, jardura edota egitasmoen planteamendu ideologikoei erreparatu gabe. Gazteen diskurtsoetan eragin horiek somatzen eta irakurtzen jakin behar dugu, baita horien aurrean hiztun gazteek adierazitako jarrerak ere.

Azkenik, hizkuntza-ideologiek etorkizuneko aldaketen berri emateko gaitasuna dute. Urteetan zehar gizarteetan metatu diren askotariko agentziak erakutsi ditzakete, baina, era berean, etorkizuneko hizkun-


tza-praktiken berri eman dezakete. Horregatik, haurrek, nerabeek eta gazteek erakusten dizkiguten hizkuntza-ideologiek aurrera begirako aldaketen inguruko pista batzuk eman ditzakete.

Hizkuntza-ideologiaz mintzatzeko garaia

Gurea bezalako gizarte egoera diglosikoetan errazagoa da hizkuntzaren inguruko gogoeta kritikoan agerpena, baina, horrek ez du esan nahi halako testuinguruetan hizkuntza-ideologiaren gaiak berebiziko interesik sortzen duenik. Euskal Herrian euskarari buruz asko hitz egin eta eztabaidatu da, baina gutxiago aztertu dira euskararen inguruko diskurtsoak eta horiek sortutako ondorioak. Hizkuntza-ideologiak zeruan dauden lainoak bezalakoak direla irudika dezakegu. Hor daude, politikak dira, baina urruti daude, zeruan; ez ditugu hemen lurrean nabari. Eurria, ordea, lainoen bidez jasotzen dugu. Lainorik gabe lurra ez du urik. Gure paisaia lainoen uren bidez osatzen da. Hizkuntza-ideologiak ere, lainoak bezala, hizkuntza-praktikekin erabat uztarturik daude, batera agertzen dira eta, beraz, landu beharreko gaia da. Hizkuntza-ideologiaz mintzatzeko garaia da. Ibil Bedi musika taldearen abestiak dioen moduan: “‘Hitza hitz’ dio zeruko pintada handiak, hastear da ikastear dugun garai berria”.



ARGITALPENAK



DENTISTA DEABRUA

David Walliams - Tony Ross

ELKAR

Herrian gauza arraroak gertatzen ari ziren gau ilunean. Hurrek jarriko zuten hortz bat burkoaren azpian sagutxoarentzat, baina goizean esnatuko ziren eta zer aurkituko eta... hildako barea, armiarma, ehunka ipurtsarde arrastaka burkoaren azpian... Nor edo zer zegoen horren atzean? Andoni Sagarnak egin du itzulpena.



NORK HIL DU TRIKUA?

Katti Olaizola eta Jon Patxi Aiastui - Paul Caballero

SUA

Triku bat agertu da hilik errepide ondoan. Zer gertatu ote zaio? Auto batek harrapatuko zuen? Harrapakariren batek? Itota edota gosez hilko zen? Galdera asko ditugu aurrean, baina erantzunak ere sarri galderen ondoan izaten dira. Adi jarraitu arrastoei eta ea noraino zaramatzen bideak! Has gaitezen!



MUGA ASTOA ETA HAREN INGURUKOEN KALAMATRIKAK

Iban Apaolaza - Jokin Mitxelena

1545 ARGITALETXEA

Gerraostean Oiartzungo errota itxi zituzten, eta «mixeri gorritik atetzeko», oiartzuarrek astoz eta gauez Nafarroako errotetara (Arantzako, Goizuetako, Lesakako eta San Antongo errotetara zehazki) egiten zituzten bidaiak kontatzen ditu *Muga astoa eta haren inguruko kalamatrikak* ipuinak.




BIDEZ BIDE HAUSNARREAN

Agustin Arrieta Urtizberea

UEU

Liburuan hiru atal bereiz daitezke. Lehenengoan, zenbait auzi filosofiko jorratzen dira. Bigarren zatian, pentsamendu feministak egin dituen zenbait ekarpen aurkezten dira, eta hirugarren zatian, hainbat autoreren pentsamendua aurkezten da: David Hume, Bertrand Russell, Susan Haack...



ANNA KOPEK ETA ERREGINAREN EDABEA

Haritz Larrageta - Marko Armspach

EREIN

Moskun bizitako abentura ahaztezinaren ondoren, oraingoan, amaren lanak Kairora eramango ditu Uxue eta Jokin. Bertan, gaur egungo eta antzinako Egipto nahasiko dituen misio baterako laguntza eskatuko die emakume misteriotsu batek. Baina, nor da Nadia?



NOR NAIZ NI?

Tandem Seceda - Ester Garcia

KALANDRAKA-PAMIELA

Nor naiz ni? bildumak faunarekiko jakin-mina eta natura zaintzeko ardura esnatu nahi ditu haurrengan. Titulu bakoitzak kontinente bateko zazpi kume ezagutzeko aukera eskaintzen du. Jolas batek ematen dio hasiera animalia bakoitzari buruzko informazioari. Asiari buruzkoa da ale hau.

PROPOSAMENA

Klimb Zarautz

Eskalada, burua eta gorputza trebatzeko

Klimb Zarautz rokodromoak instalazio berrienak eta modernoena haurren eta nerabeen eskura jartzen ditu, hezitzaileen bidez, garapen psikomotorean ez ezik, pertsonalean eta sozialean laguntzeko. Eskolako ikasleei eskaladaren oinarritzko teknikak erakusten dizkiete eta kirol horren balio positiboak transmititzen.


Eskalada onura fisikoak, psikologikoak eta sozialak dituen kirola da. “Trebetasun fisikoak garatzeaz gain, norbere burua ezagutzen laguntzen du eskaladak eta erronkei aurre egiteko bertuteetan laguntzen dio haurrari eta gazteari”, dio Ander Gorostitzu Muxikak, Klimb Zarautz rokodromoaren arduradunak. “Baina, beharbada, garrantzitsuenak sozializatzeko, harreman onak sustatzeko eta taldean lan egiten ikasteko eskaladak eskaintzen duen aukera paregabea da nabarmendu beharrekoa”. Kirol eskaintza soiletik harago, filosofia oso bat eskaintzen du Klimb Zarautzeko esperientziak: “Eskalada kirol-, kultura- eta gizarte-jarduera gisa ulertzen dugu; ingurumenarekiko eta besteekiko errespetutik. Guretzat eskalada horrek igotzea baino askoz gehiago baita”. Filosofia horretatik zabaldu zituen ateak martxoan Klimb Zarautz rokodromoak, eta eskolako haurrei eta nerabeei ere eskaintzen dizkie zerbitzuak.

Eskaladaren bitartez hurrek eta



nerabeek garatzen dituzten ezaugarri positiboaren artean, honako hauek nabarmentzen ditu Gorostitzuk: “Erronkak gainditzen laguntzen duen neurrian, konfiantza eta autoestimua hobetzen laguntzen du eskaladak. Gainera, erronka horiek gainditzeko lagunen laguntza behar denez, talde-lana, talde kohesioa eta taldeko konfiantza sustatzen

ditu. Rokodromoan sartu orduko ikusten dugu haurren jarrera elkarri laguntzekoa dela, euren onena ematen dute lagunari laguntzeko, eta ondoren, lagunaren onena jasotzen dute”. Maila pertsonalean, haurren eta gaztearen psikomotrizitatea garatzeko kirol ezinhobea dela dio Gorostitzuk, “eskaladak gorputz atal ugari lantzeko aukera ematen



Klimb Zarautz

Araba kalea, 45
20.800 Zarautz (Gipuzkoa)
www.klimbzarautz.com
635 70 09 86

Instalakuntzak: 80 *boulder*-ibilbide, astero aldatzen dituztenak, zailtasun eta teknika ugari lantzeko diseinatuak.

Ikastaroa: hastapeneko oinarriko ikastaroa bertan eskaintzen die hezitzaileak.

Oharra: katu-oinak bertan alokatzen dituzte.

digu, eta haurren eta nerabeen arintasuna eta oreka hobetzen laguntzen du. Malgutasuna, besoetako eta hanketako muskuluen indarra eta erresistentzia hobetzen dituen neurrian, oso kirol konpletoa da, energia hobeto bideratzeko aukera ematen duena”. Garapen psikomotorak, orekak eta erreflexuen garapenak funtzio kognitiboetan dituen onurak ere azpimarratzen ditu: “Behaketa, errepikapena eta memoria eskatzen dituen teknikak uztartzen ditu eskaladak eta hori guztia aberasgarria da ikaskuntzarako ere”.

Naturarekiko errespetua da Klimb Zarautzen beste ardatzetako bat. Rokodromoaren kudeatzaileek ingurunerarekiko errespetua bizi dute, eta haurrei eta nerabeei kirol eta aisialdi aukera berriak eskaintzeko borondatearekin batera.

“*Indoor* eskalada haitzeko eskala-

daren osagarri da, eta natur ingurunean eskalatzea natura zaintzeko eta maitatzeko tresna gisa ulertzen dugu, haitzean eskalatzeak naturaren parte sentitzen laguntzen du eta hala saiatzen gara transmititzen ikasleei ere”.

Bestelako kirol eskaintza

Haur eta nerabe askok euren eskura ez daukaten esperientziarako aukera eskaintzen du Zarautzeko rokodromoak, eskuarki ez baita Gorpuz Hezkuntzan nahiz Eskola Kirolean aski sustatzen. Punta-puntako instalakuntza modernoak ditu rokodromoak, Kilter Board 3,66x3,66 metroko horma handia da ikusgarriena. Eskaladan arituak diren eskalatzaile trebatuen beharrak asetzeko horrez gain, hasi berriak diren haurrentzat eta nerabeentzat propio pentsaturiko *boulder*-ibilbideak daude, “haurrei

eta nerabeei bestelako kirol eta aisialdi aukera eskaintzeko asmoa baitu oinarrian” Klimb Zarautzek. *Indoor* instalakuntza izanik, urte osoan egin daitezke ikastetxeetako bisitak. *Boulder*-ibilbideak ditu nagusi rokodromoak, baina oinarriko soka praktika egiteko bost bide ekipatu ere baditu.

Haurrek eta nerabeek katu-oinak jantzi orduko, beroketa lanak egin eta eskaladako oinarriko kontzeptuak azaltzen dizkie hezitzaileak, eta *boulder*-ibilbide ezberdinak probatzeko aukera izaten dute ondoren, saiakerak egin ditzaten. Hainbat jokoren bidez irakasten dizkie begiraleak eskaladako oinarriko pausoak, eta libreki praktikatu aurretik, txandaka soka eskalada egin dezakete guztiek. *Zortzi* korapiloa egiten ikasi eta aseguratzearen garrantzia praktikaren bidez ikasten dute.

ATZEKO ATETIK



ESKOLAK GELAN ALA AIRE LIBREAN?

NAHIA INDURAIN PEREZ

TAFALLAKO GARCES DE LOS FAYOS IKASTOLAKO
DBH 4. MAILAKO IKASLEA

Ikasturte bukaera, burua gela barruan baino, kanpoaldeari begira daukagu. Azken txanpak eragiten duen urduritasunak eta tentsioak gelako giroa are eta astunagoa bilakatzen du, eta hala, beroak eta kiratsak ikasgela osoa zeharkatzen dutelarik, urtero honako eztabaida suertatzen da gure artean: non eman eskolak, leku itxi batean ala aire librean? Zein izango da, bada, apusturik onena?

Ikasketak gela batean egitea da ohikoena, baina horrek ez du esan nahi horrela egin behar denik. Egia da neguan edo hotza egiten duen sasoieta askoz erosoagoa dela, haizetik edota euritik babestua zaudelako. Horrez gain, gelan egotean ordenagailua eta proiektorea izateko aukera izango duzu, ikasleei gaiarekin lotura duen bideoren bat jartzeko edota online ariketaren bat egiteko. Gainera, leku itxietan arreta erakar diezazuketen gauza

gutxiago daude, kanpo-estimuluak murriztagoak baitira, jendea, zarrata, animaliak eta abar kasu. Hala ere, nerabeen gela batean, jolas-tokian edo Gorputz Hezkuntzan kirola egin eta gero dagoen usaina nahiko txarra da. Horrek konponbide erraza dauka, baina hotza egiten duenean leihoak irekitzea ez da aukerarik egokiena.

Edukiak aire librean irakasteak, bestalde, bestelako hezkuntza metodo bat eskaintzen du. Dena dela, iritzi kontrajarri asko ager daiteke. Hala nola, ikasleek, ziurrenik, oso ideia ona dela esango dute, gelan egotea aspergarriagoa delako. Irakasleei galdetuz gero, ordea, oro har, ez zaie batere gustatuko, ikasleak edozer gauzarekin oharkabetuko direla esango dute eta. Gainera, udaberri aldera, urtaro honekin lotutako osasun arazoak izan ditzaketen ikasleak kontuan hartu beharko genituzke. Hori

gutxi balitz bezala, kanpoaldean eskola aurrera eramateko gunea antolatu eta prestatu beharko genuke, mahaia eta aulkiak mugitu, material guztia prest izan... eta horretan denbora gehiegi galduko genukeela iruditzen zait.

Esandako horregatik guztiagatik, zerbait zehaztu baino lehen, hainbat alderdiri erreparatu beharko geniokeela uste dut. Eskolak aire librean ematea oso ideia ona dela deritzot, baina hezkuntza zikloaren arabera egokitasun-maila aldatzen dela ere esango nuke. Era horretan, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan ikasleen ikaskuntza aktiboagoa eta dinamikoagoa bultzatzea dezakeen neurrian, DBHn, gure prestakuntza eta ikasketa-prozesua oztopatzeke arriskua egon daiteke. Horregatik, aldeztu aurretik, kanpoan ala barruan egiteko saioak eta ekintzak zein diren ongi zehaztu beharko litzateke.

IRRIA

Urtean 10 zenbaki

etxeko txikienen artean irakurzaletasuna,
sormena eta ahozketasuna sustatzeko

ipuinak, komikiak, zientziako infografiak,
denbora-pasak, jolasak, eskulanak



Egin IRRIAREN harpidetza, eta baliatu
gure eskaitza berezia: **10 €-ko bonoa**
Elkar dendetan erabiltzeko

NON EGIN HARPIDETZA?

- Elkar dendetan
- Katxiportaren ikuskizunetan
- (0034) 943-30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus orrian
- www.irrienlagunak.eus/harpidetza orrian

URTEKO
49€
HARPIDETZA



berria **ekar** Katxiporta

IRRIEN  **LAGUNAK**

www.irrienlagunak.eus



2023-24 IKASTURTEKO ESKAINTZA

LEHEN HEZKUNTZA ERALDATZEN

**Edukiak:**

Tutore gogoetatsuaren rola, 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak, hezkuntza proiektuaren prozesua, espazioaren antolaketa, ebaluazio hezigarria, pedagogia sistemikoa...

Koordinatzaile pedagogikoa:

Aritz Larreta

Formazio pertsonaleko koordinatzailea:

Alvaro Beñaran

JIRAFAREN HIZKUNTZA. KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA

Edukiak:

Adierazpen zintzoa, entzute enpatikoa, errurik gabeko guneak sortzeko trebetasuna; gatazken kudeaketa; amorraren kudeaketarako trebetasuna; mugak jartzeko trebetasuna; ikasleen autoestimua elikatzeko trebetasuna...

Formatzailea:

Nerea Mendizabal



PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA

**Edukiak:**

Gorputzaren bidezko komunikazioak eskaintzen duen errespetuzko entzute, itxarote eta laguntzeko trebetasunak eskuratzen hastea; haurren jolas librea behatzea...

Formatzailea:

Mapi Urresti